



# ttiipi-ttapa

TOKIKOM

erran.eus



Unai IANTZI → 45  
Koxkor biltzen, Euskal Herriko txapelaren bila

2016ko irailaren 29a | XXXVI. urtea | 671. zenbakia

## Moda

Gehigarri berezia → 23-30

## ZUBIETA → 20

Euskararen Eguna ospatuko dute urriaren 8an

## BAZTAN → 35/37

Herriko bestak Anizen eta Gartzainen

## SARA → 40

Lehen aldiz Kabalkada plazan, urriaren 9an

## SENPERE → 40

Oxtikenekoak Elkarteak 20 urte bete ditu

**Tomas REKONDO** | Lesakako musikaria eta okina

## «Musika Banda familia bat bezala da»

Klarineta eskuetan, Lesakako Musika Bandan urte gehien egin dituen musikaria da Tomas Rekondo lesakarra. Aurten erran dio *aio* Bandari, baina «penarekin».

Hala ere, txistuarekin segitzeko asmoa badu. Musika munduan egin duen ibilbideaz eta lehengo eta oraingo kontuez solastu zaigu. **ELKARRIZKETA → 3**



## LEITZA ETA BAZTAN



## Autoa partekatuz

ERREPORTAJEA → 4-5

Autoa konpartitzeko bitartekoak eskaintzeko *Autokide* eta *Tartarkar* zerbitzuak sortu dituzte Baztanen eta Leitzaan. Dirua aurreztu, kutsadura murriztu eta bidaide berriak egiteko aukera eskaintzen duten aplikazioak dira.



## ERRAN.EUS argazki lehiaketako saridunak

Xabier Erasunen *Bi langileak...* argazkiak irabazi du erran.eus atariak antolatutako argazki lehiaketako epaimahaiaren saria. Hala, Itzaltzuko Besaro landahotelean asteburuko egonaldia irabazi du. Erabiltzaileen saria, berriz, Etxalarko Bentan bi lagunendako otordua, Pello San Millanen *Baztango erreketako lamiak* argazkiak irabazi du. Parte-hartzaileen artean zozketatutako Baztango Zaporeak produktuekin osatutako saskia Jabier Larretxearentzat izan da.

→ 42

ZOZKETAK → 50



Txartela egiteko deitu  
**948 63 54 58**ra edo idatzi  
**info@ttiipi.eusera.**



**BORTZIRIAK<sup>SL</sup>**  
25 urte eskerrik asko guztioi!!!

**expert**



**i-DOS arropa-garbigailuak**

20 garbiketa egiteko detergente eta leungarri deposituarekin.

**695€tik**

**Bosch lehorgailuak**

Kontsumo txikiko Bosch lehorgailu bero-ponpadunak. Bakarrik 37€ kontsumitzen ditu urtean!

**579€tik**

**BOSCH > i-DOS garbigailua eta lehorgailua**

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091  
info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

**PROBATU ITZAZU HILABETE BATEZ!**

## Liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan **CIESek Nafarroa Garaiko mendialdean hartu duen 111 udalerrien eremuan ere**



### Ttipi-Ttapa 28.000 irakurle

DIARIO DE NAVARRA	14.000 irakurle
DIARIO DE NOTICIAS	12.000 irakurle
GARA	3.000 irakurle
EL PAÍS	3.000 irakurle
MARCA	2.000 irakurle
EL MUNDO	2.000 irakurle
BERRIA	1.000 irakurle
BESTE BATZUK	8.000 irakurle



erran.eus



**SEXUAREN ARABERA**

GIZONAK	%55,00
EMAKUMEAK	%45,00

---

**ADINAREN ARABERA**

14-24 URTE	%13,40
25-34 URTE	%10,40
35-44 URTE	%27,60
45-54 URTE	%12,70
55-64 URTE	%17,80
+64 URTE	%18,20

---

**IKASKETA MAILAREN ARABERA**

IKASKETARIK GABE	%27,60
OINARRIZKO BATXILERGOA	%17,80
GOI MAILAKO BATXILERGOA	%26,40
UNIBERTSITATEA	%28,30

Datu iturria: CIES, 2016ko lehenengo neurketa

Musikaria, okina, pilotazalea eta batez ere Koteto Ezkurraren jarraitzaile sutsua, zazpi seme-alaben atta... Zerrenda luzea osa daiteke Tomas Rekondorekin (Lesaka, 1939).

Txistua eta klarinetea izan ditu musika-tresna kuttunak eta klarinetea eskuetan Lesakako Musika Bandan urte gehien ibili dena ere bera da. 14 urterekin hasi zen eta aurten utzi du,

baina «pena haundiarekin». Tomas bera ez, baina bere izena daraman jota hor izanen du Bandak nahi duenerako. Eta Tomasek musika maitatzen segiko du, baita txistua jotzen ere.

Tomas REKONDO | Lesakako musikaria eta okina

# «Lesakak badu musikarekin zerbait berezia»

G. PIKABEA | LESAKA

## Nola sartu zinen musikara munduan?

Nire aitak musikarako afizio handia zuen. Oraindik buruan dut Santiago Irigoien bizikletan zihoa-geldiarazi zuela, eta niri solfeoa erakusteko erranzioa. Sei bat urterekin solfeoa ikasten hasi nintzen Santiagorekin, eta txistua jotzen ere berak erakutsi zidan. Klarinetea jotzen beranduago hasi nintzen, 12-13 urterekin, Guillermo Agararekin. Santiago herrian hagitz maitea izandu zen, baina Guillermok ere lan handia egin zuen. Klarinetea, tronpeta, saxofoia... musika-tresna guztiak berak erakutsi zituen, eguerditan solfeoa eta arratsaldetan musika-tresnak. Musikari handia izandu zen, Iruñeko Orfeoian bakar-lari eta Lesakako Musika Bandako zuzendaria ere izan zen. Zerrategiko bonbatxoak kenduta, solfeoa eta instrumentuak erakusten hasten zen. Lesakak badu musikarekin zerbait berezia.

## Musika Bandan noiz hasi zinen?

14 urte nituela, Manolo Igoa eta biak hasi ginen. Gogoan dut hilabete pare batez esperoan egondu ginela klarineteak moldatzera eramanez zuzendalako. Orduan, musika-tresnak Herriko Etxearenak ziren. 70. hamarkadatik 1980ra Banda desager-tu egin zen. Gero, Jabier



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Tomas Rekondo bere musika-tresna kuttunekin.

Igoarekin berriz hasi ginen eta orain arte ibili naiz.

## Urte horietan Musika Banda aunitz aldatu da?

Bai, aunitz. Garai hartan irakasle bakarra genuen eta musika-tresna guztiak Guillermok erakusten zituen. Orain, musika eskolan, tresna bakoitzeko irakasleak daude. Maila nabari da eta lehengoarekin konparatuz, ez du deus ikustekorik. Orain hagitz prestatuak daude eta hagitz ongi jotzen dute. Gainera, garai hartan, 19-20 bat lagun izaten ginen eta orain 50 lagunetik goiti. Musika-tresnak ere aunitzez hobeak dira eta erreperitorioari dagokionez, oraingo gazteek soinu-bandak eta hala-koak nahi dituzte.

## ZER DA MUSIKA?

«Nire bizitzan aunitz betetzen nauen zerbait da musika. Orain ere, egunkaria irakurtzerakoan musika paratzen dut».

## MAILA

«Gu hasi ginen Musika Banda hartatik, gaur egungora badago alde, maila nabari da. Orain hagitz prestatuak daude eta hagitz ongi jotzen dute».

## Eta aurten Musika Banda uztea erabaki duzu...

Bai, gero eta zailagoa egiten zitzaidan klarinetea jotzea. Klarineteak zazpi zulo eta hogeitaz hurbil ditu eta behatzek traba egiten didate, nahi gabe ez ukitu beharrekoa ukitzen dut... Azken aldian, gaizki pasatzen nuen eta garbi dut gozatzeko jo behar dela. Pena haundiarekin, baina aurtengo sanferminetan bukatzea erabaki nuen. Halere, aitzinetik zenbat aldiz hurbildu ote nintzen telefono ondora, Mikel Iriarte zuzendariari utzi behar nuela errateko... Klarinete nagusia izan beharrean, bigarren eta hirugarren klarinetejole izateko begira ere ibili nintzen, baina ma-

kurrago, zailagoa da. Eta uztea erabaki dut. Ez nuen deus erran nahi izan hondarrera arte, eta azkenean momentu polita izan zen. Nire izena duen jota jo zuten eta maite naute-la ere erakutsi zidaten.

## Zure izena duen jota...

Incansables txarangako Joaquín Ortega *Canariok* egin zidan, ez dakit zergatik. Bandako entsaio batean, izenik gabeko kantatzen eman ziguten. Zuzendariak gustuko nuen galdetu eta izena paratzeko erran zidan, Joaquín-ek niretzat egin zuela. Harrituta gelditu nintzen. Hurrengoan berarekin serratatu nintzen, eta izena paratu nion galdetu zidan. *Okinan semik* proposatu nion, biak okinaren semeak ginelako eta ezetz erran zidan, *Tomas Rekondo* izan behar zuela. **Klarinetea ala txistua aukeratu zenuke?**

Biak gustuko ditut, baina igual klarineteak gehiago bete izandu nau. Klarineteak kantu guztia eramaten du, eta ni klarinete nagusia izandu naiz. Txistua baino zailagoa ere bada, doinu polita du baina gozoa bezain desatsegi-na izan daiteke ongi jotzen ez bada. Txistuarekin, berriz, beti bigarren aritzea gustatu izandu zait. Klarinetea utzi badut ere, txistuarekin segitu nahi dut. Eta ahal dudan guztian, Bandan laguntzeko prest nago. Familia bat bezala izandu gara.

GIZARTEA → KONTSUMO ARDURATSUA

# Autoan elkarrekin

Baztanen Autokide eta Leitzan Tartarkar zerbitzuen bidez, autoa partekatzeko aukera zabal-tzen ari da

Autoen barrenera begiratuz gero, bost eserlekuetatik lau hutsik doaz gehienetan. Ohituraz edo bidaia bera egiten duen inor ezagutzen ez dugulako, agian? Kontsumo-eredu horri buelta eman nahian, autoa konpartitzeko bitartekoak eskaintzea erabaki zuten Baztan eta Leitzan. Eta hala sortu dira, *Autokide* eta *Tartarkar*, dirua aurreztu, aztarna ekologikoa murriztu eta bidaide berriak egiteko aukera eskaintzen duten aplikazioak.

## Eneritz IRAOLA

Herrian zegoen behar bati erantzuna emateko sortu dira bi zerbitzuak «bidaia planifikatze-rako orduan herritarrei baliabide bat gehiago eskaintzea da helburua. Baliabideak partekatu, kontsumoa murriztu eta bide batez, hausnarke-ta eragitea». Hala azal-du diote TTIPI TTAPARI Juan Kruz Iriartek, Baz-tango Udaleko zinego-

tziak, eta LeitzEko Kon-tsumo taldeko Mugikor-tasun Taldeko kideek.

## KONTAKTUAK LORTZEKO BIDEA

Iragarki taula bat be-zala funtzionatzen du-te *Tartarkar* eta *Autoki-dek*. Bidaia bat egin be-har eta autoa parteka-tzeko interesa duten pertsoneri elkar ezagu-tzeko aukera emanez. LeitzEko Kontsumo Tal-

deko kideek aipatu dute-nez «norberabe-re kotxean ibiltzeko eredu indibidualistari pixka bat kontra egite-ko modua ere bada».

## HUTSUNE BAT BETEZ

Baztan eta Leitzan garraio publikoak ez di-tu asetzen herritarrekizan ditzaketen beharrak, mu-gikortasun arazoak era-ginez «autobusak ez

daude orduro eta ordutegi estu

baten arabera moldatu beharra izaten da. Ikas-leek adibidez, kanpoan ikasteko autoa behar izaten dute edo bestela pi-su bat alokatu». Gainera, Baztanen «herri bate-tik bertzera joateko ere ez dago eskaintza han-diegirik». *Autokide* eta *Tartarkar*-en bidez «ga-

rraio publikoaren aukera eskasengatik mugatuta dauden herritarrek erre-kurtsu bat gehiago izan dezakete behar dituzten bidaia egiteko». Izan ere, webgune hauei esker era-biltzaileek «herritik edo herrira autoz egiten diren bidaien informazio egu-neratua izanen dute es-kura, eta baita gidari horiekin kontaktuan jar-tzeko aukera ere».

## DOAKO ZERBITZUA

Leitza eta Baztango Udalek udal-aurrekon-tuaren zati bat bideratu dute *Tartarkar* eta *Auto-kide* aplikazioak garatze-ko. Kudeatzeko orduan, ordea, Leitzan LeitzEko Kontsumo Taldeko bo-luntarioek egiten dituzte mantentze eta arreta-lan-ak eta Baztanen Com-partir SL enpresaren es-kuetan utzi dute ardura hori. Bateko zein beste-ko erabiltzaileek ez du-te deus ordaindu behar zerbitzua erabiltze-gatik. Beste kontu bat da bi-daia konpartituz gero gastua konpartitzea, bai-na hori erabiltzaileen arteko kontua da, *Tartarkar* eta *Autokide* ez du-te horretan zeresanik.

Juan Kruz IRIARTE | Autokide proiektuaz

## «Baztanen garraio publikoak dituen hutsune batzuk bete litezke zerbitzu honekin»

Herritarren eskari bati erantzunez, Baztango Udalak 2014an jarri zuen mar-txan *Autokide* zerbitzua «Ingurumen Batzordeak egin zion proposamena Uda-lari eta interesgarria zela ikusita, zerbitzu hori kudeatzeaz arduratuko zen enpresa bat kontratatzea erabaki zen» azaldu digu Juan Kruz Iriartek, Baztan-go Udaleko zinegotziak. Helburu nagusia «herritarren artean, autoaren erabilera zentzuzkoagoa bultzatzea da, autoa konpartituz». Gainera, ener-gia kontsumoa eta kutsadura gutitzeaz gain, Baztango herritarrei joan-etorrie-tarako bertez aukera bat ere eskaintzen zaiela azpimarratu du «autoarekiko menpekotasun handia dugu. Badira Elizondotik Iruñarako bidea egiten du-ten autobusak baina ordutegiak motz gelditzen dira. Eta herrien artean ere zerbitzu bat antolatze-ko beharra zegoela sumatu genuen. *Autokide*rekin be-har horiei irtenbidea ematen diegu». Denei irekia dagoen zerbitzua da eta erabiltzaile kopuru polita du dagoeneko «2014tik honat, 110 pertsona in-guruk erabili dute zerbitzua. Gehienak ikastera edo lanera joateko».



«2014tik honat, 110 pertsona inguruk erabili dute zerbitzua. Gehienak ikastera edo lanera joateko»

**Juan Kruz IRIARTE**

Baztango Udaleko zinegotzia

«Norbera norbere kotxean askatasun handiz eta erosotasun osoz ibiltzen gara eta pensatzen dugu, beste alderdi batzuk kontuan hartu gabe: kutsadura, gastua...»

**LeitzEko taldea**

Tartarkar-eko talde eragilea

#### GOGOETARAKO BIDEA

Zerbitzu bat eskaitzeaz gain, hausnarketarako bidea ere ireki nahi dute Leitzan «herri barreneko kotxearen erabilpenari buruz herri moduan pentsatzeko beharra dagoela uste dugu. Orokorrean, garraio-mota ezberdinek eragiten duten energia-kontsumoaren inguruan pentsatzea denon ardura dela uste dugu, eta horren inguruko eztabaida beharrezkoa iruditzen zaigu». Baztango karraketan ere bada go zer aldatua «herri barreran egiten diren joan-etorri laburretarako ere autoa hartzen dugu maiz. Horrek dakarren arriskuekin eta eragiten duen kutsadurarekin».

#### OHITURA ALDAKETA BEHARREZKOA

LeitzEko Kontsumo taldekoen ustez, «kultura-arazo bat ere badago hor. Norbera norbere kotxean askatasun handiz eta erosotasun osoz ibiltzen gara eta pensatzen dugu, beste alderdi batzuk kontuan hartu gabe: kutsadura, gastua... Petrolioaren ustiapenarekin eta gasoilaren prezio baxuarekin erabat lotua dagoen eredu da hau».

#### LeitzEko Kontsumo Taldea | TarTarKar proiektuaz

«Kotxearen erabilera arduratsuagoa egiteko aukera da, herritik herriarentzat egindakoa»



Leitzako Udalak 2014an egin zuen parte-hartze prozesuaren baitan jaio zen *Tartarkar* sortzeko ideia. Zerbitzu interesagarria izan zitekeela ikusirik, Udala LeitzEko Kontsumo Taldekoekin jarri zen harremanetan eta bertako Mugikortasun Taldea arduratu da ekimena martxan jartzeaz. «Beste herri askotan bezala mugikortasunaren beharra modu indibidualen konpontzen dugu, horrek ekartzen duen gehiegizko kotxe eta kontsumoarekin. Gainera, eredu indibidual honek harreman-sareak sortzeko aukerak murrizten ditu». Herri barreneko kotxearen erabilpenari buruz «herri moduan pentsatzeko beharra» dagoela uste dute «orokorrean, garraio-mota ezberdinek eragiten duten energia-kontsumoaren inguruan pentsatzea denon ardura dela uste dugu, eta horren in-

guruko eztabaida beharrezkoa iruditzen zaigu». Sarean dauden bestelako aplikazioekin alderatuta, Tartarkar-ek badu berezitasun bat «anonimotasuna garrantzitsua da halako zerbitzu bat eskaintzean, lege aldetik eta arazorik ez izateko. Ezizen bidez egin behar zen erabiltzaileen kontaktua, eta herriko toponimoen zerrendatik ateratako izenak erabiltzea okurritu zitzaigun, hala herriarekin identifikatzeko eta, nork daki, toponimia pixka bat ikasteke ere aplikazio hau». *Arpe, Ansolitz txiki, Arribillaga...* dira erabiltzaile izen horietako batzuk. Momentuz proba fasean daude eta pixkanaka ari dira ikusten ze kasuistika gerta daitezkeen, «horren arabera aplikazioan aldaketak sartzen ari gara: ordutegiaren, informazio osagarriarekin edo beste kontu batzuekin lotutako aldaketak».

#### ERRONKAK

Erabilera zabaltzea da orain erronka nagusia «heritarren artean etabaita herrira etortzen dire-

nen artean ere. Horretarako, barneratuta ditugun hainbat muga puskatzen saiatzea ezinbestekoa izanen da: baka-

rrik bidaiatzeak dakarren ustezko erosotasuna, ohiko ingurutik kanpoko jendearekin harremana egiteko erreparoa...». Bai-

na muga horiek gaintuz gero, poltsikoari eta ingurumenari mesede egin eta solaslaguna topa genezake.

#### AUTOKIDE ERABILTZeko PAUSOAK

- [autokidebaztan.compartir.org](http://autokidebaztan.compartir.org) webgunean sartu.
- Zerbitzua **lanera, unibertsitatera edo bidaian** joateko baliatu nahi den zehaztu.
- Aukeratutako bidaia egiteko izena eman duten pertsonak agertzen dira.
- Posta elektronikoa bidez jarri ahalko zara haiekin harremanetan.
- Haien lehentasunak zein diren, autorik duten ala ez, bidaiaren arrazoia zein den eta beste hainbat datu ikusi ahalko dituzu autokideak errazago topatu ahal izateko.
- Mezu elektronikoa bat utzi ahalko diezu zure ustez bidaia bera partekatzeke.

#### TARTARKAR ERABILTZeko PAUSOAK

- [tartarkar.eus](http://tartarkar.eus) webgunean sartu.
- **Kontua sortu.** Erregistratu benetako helbide elektronikoa batekin. Erabiltzaileek mezu bat jasoko dute kontua martxan jartzeko eta ezizen bat.
- **Argitaratu bidaia.** *Gehitu bidaia berria* sakatu eta bidaiaren datuak sartu, edo bestela *Nire bidaiak* atalean bidaia editatu eta argitaratu.
- **Ikusi bidaiak.** *Bidaiak* atalean ikusi litezke eguneratuta dauden bidaiak eta baten bat interesatuz gero, **kontaktuan jartzeko** aukera irekitzen da.
- **Mezuak jaso eta erantzun.** Norbaitek mezuren bat bidaliz gero, e-mailean jasotzen da abisua. Erantzuteko [tartarkar.eus](http://tartarkar.eus)-eko *Jakin arazpe*-nak atalean sartu eta bertatik erantzun behar da.



**Nire txanda**  
Joseba URROTZ

## Euskara jatorra

- Egunon!; - Berdin!; - Egin duk lo?; - Lo...? Ze ba...?  
- Ze ba... Egun on erran ezker, "baita hiri/zuri ere", huen errangunia. Eta ondotik berriz: - "egin duk lo?", - "bai egin diagu, hik ere bai?". Nik hori ikasi gurasoei. Hara, nahigabe pixar bat nabari diat, gure bazterrotan ikasitako hainbat hitz eta erramolde galtze bidean ikusirik. Errate baterako, komunikabide eta eskoletan ikasitako "beraiek" hartu diagu "beurek, eurek..." orde. Ta "honezker", "gaurgero"...? "Iada"? Noiz aditu hori Baztan-Bidasoan? Estalkia hitz polita, "tapa"-kin estali. Punta zorrozten ari ote nauk? Ez al huen "muturra"? Nik gustuko diat "Haundia", nonbait okerra izaki, "handia" ikusten diat idatzirik. Eta "muturra" izatea? Gaztelera "tener morro"tik hartua, nik amatxiri "kopet zabala" ikasi nioken.  
- Motel, hago lasai, hire gurasoengadik ikasi duken euskara uste al duk dela txukunena? Hoaie nola mintzo hituken orain 1000 urte! ETB2-an ikusi dit berriki, euskal izen arrasto zaharrenak, ia milaka urtekoak, gaur eguneko Euskal Herriatik ehundaka kmra, Frantzia aldeko Pirinio magalean harrapatu omen dizkitek, gaur egun euskaldunik ezten lekun!  
- To, orduan ezti balio kezkatzik. Hizkuntza gauza bizia dela ziotek, onartu beharko. *Hasta gero!*

**Ezpala**  
Aitor AROTZENA

## Gazteak eta Gaztea

**E**z naiz ariko kanta bera egunean 80 aldiz entzuteak sortzen duen burukominaz, ezta zenbait esatarik darabilten "euskalkiaren" egokitasunaz... Baina beraien izena daraman irriariaren ustez hau da gazte euskaldunen kezka nagusia?: *Kim Kardaxian edo bere kopia, zein gustatzen zai-zu gehiago?* Nik, bederen, badakit zuen kezka zein den: *Hire adinarekin, ze (o...) ari haiz Gaztea aditzen?*

## Nabarmentzekoak



Jose Ignacio AMELMA  
Logroñoako margolaria

Berako XII. pintura lehiaketa aire zabalean irabazi zuen irailaren 18an, 900 euro eskuratu. Bilboko Carlos Espiga izan zen bigarren eta Jesus Mukar Muruzabal hirugarren.



Mari Jose BARRIOLA  
GUTik ZURA Zinemaldian

Leitzarrak zuzentzen duen proiektuaren baitan GUTik ZURA filma Donostiako Zinemaldian estreinatu zuten irailaren 23 eta 24an, Zinemira atalean. Sarrera guztiak agortu zituen.



Unai IANTZI  
Koxkor biltzen desafioa Anizen

Koxkor biltzen Nafarroako txapeldun eta 7 herrialdeen arteko txapelketan garaile izan ondotik, bertze erronka izanen du sorterriko bestetan: 10 aniztarren kontra bakarrik ariko da.

**Atzera begira**  
→ 2001-IX-20  
TTIPI-TTAPA 310 zk.



### Jabier Larralde txistulariari omenaldia Arkupeak elkarteak

Duela hamabortz urteko San Migel bezperan Arkupeak elkartearen omenaldia jaso zuen Jabier Larralde txistulari arizkundarrak. Horretaz gain, *El Irunés* aldizkariak Urteko Bidasotarra ere izendatu zuen urte hartan. Ttipi-Ttapa egindako elkarrizketan aipatu zuenez, «1944an hasi nintzen txistua jotzen, 18 urterekin. Orduan Felix atabalaria nerekin hasi zen. Amaiurren kontrata bat egin genuen igandero jotzeko. Igandero bazen soina eta dantza laxoa egiten zen denbora heketan. Urteko 70 duroko kontrata genuen». Baina txistua jotzeaz gain, «dantzak eta folklorea ondorengoei erakusketko lan handia egin dugu» zioen.

**ttipi-ttapa**

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA  
Tel. (+34) 948 635458 • Faxe (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)



**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irtatzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

### 2016ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	20€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	74€
Amerika eta Australia	124€



**Nafarroako Gobernua**  
**Gobierno de Navarra**



Bortzietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

## Kolaborazioak

# Makinak eskulana kentzen du

Markel LIZASOAIN

Xabier Lete zenaren kantua da *Izarren hautsa*. Honela hasten da: "Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai". Esaldi horretan, denboraren elipsi izugarria dago; esan nahi dut Letek poesian egiten diren bihurrikeria horietako bat egin zuela hura idatzi zuenean: unibertsoa noizbait sortu zen, eta hartatik bizia formatu gure lurrean. Ohartu ia-ia ez daitekeela hori baino gehiago laburtu esaldi batean denboraren joana, hain hitz gutxitan. Denbora saltoena maiz egiten da pelikuletan ere. Entzuna nago Stanley Kubrick izeneko zine zuzendari batek egina duela pelikula batean dagoen denbora saltorik handiena. 2001: *Espazioko Odisea* du izena pelikula horrek (1968). Oso ezaguna da, eta telebistan behin baino gehiagotan eman dute. Hasieran ageri du ditxosozko denbora salto hori: historiaurreko gizaki batek ikasten du hezur batek balio duela arma bezala; gero, hezurra airean tiratzen du, eta, bat-batean, satellite bat agertzen da zeruan, hezurra zegoen tokian. Zine zuzendariak horrekin erakutsi nahi du gizakia eta teknologiaren arteko joko bat (Interneten leitu dut teknologiaren hori). Gizaki horrek hezurra ibiltzen ikasten duenean, beste gizaki bat hiltzen du (atakatzen ari da edo defenditzen ari da? Biak ematen du, norbait atakatzen eta terriorioa berreskuratzen), eta filmaren akabian, teknologiak berak hiltzen du gizakia. Jainkozko monolitoa ere azkenean gizakiarena bezalako inteligentzia batek sortua izanen dela pentsarazten du. Gauza asko esaten ditu Kubrickek pelikulan, eta, poesian bezala, zaila edo inposiblea da egile batek esan nahi duen guziaz harrapatzea... Nire ustez, berak esan nahi duen gauzetako bat da teknologiak ez duela mugarik. Gure herrian badago makinak eskulana kentzen duela dioen adin handiko pertsona bat. Denak konforme egonen dira izugarri buru argikoa dela. Ematen du teknologiarekin halako borroka bat izan duela bere bizian, uko egin baitio auto bat izateari, traktore bat izateari, motozerra bat izateari, niri iduritzen...

«Gure herrian badago makinak eskulana kentzen duela dioen adin handiko pertsona bat. Denak konforme egonen dira izugarri buru argikoa dela. Ematen du teknologiarekin halako borroka bat izan duela bere bizian, uko egin baitio auto bat izateari, traktore bat izateari, motozerra izateari, niri iduritzen...»

## OSASUNEZ

# Haurren sukarra nola kudeatu?

Blanca LABIANO ILUNDAIN (Doneztebeko Osasun Zentroa)

### Zer da kalentura edo sukarra?

Gorputzeko temperatura igotzea. Gorputzean infekzioen bat dagoela adierazten du, eta haren babes-sistema aktibatzen du.

### Noiz erranen dugu sukarra badela?

Besapean hartutako temperatura 37°C eta 37,9°C bitartekoa baldin bada, febrikula izanen da. 38°C tik gora, berriz, sukarra hasten da.

### Zer egin dezakegu?

Termometro batekin gorputzeko temperatura begiratu ondoren...

### Sukarra izanez gero:

- Hotzikara duenari ez zaio arropa gehiago jarri behar. Kendu arropa edo gainean dituen mantak. Ohean pijama arinarekin egotea komeni da, eta lotarako oharzal edo koltxa fina jartzea. Hobe da pijama kotoizkoa izatea, eta asko izerdituz gero, muda maiz aldatzea.
- Gelak fresko egon behar du, eta zenbait aldiz haizeberritu behar da egun osoan.
- Likido hotzak edan behar dira, gaixoak onartzen baditu. Gorputzari on eginez gero, asko edan dezala.
- Beharrezkoa bada, medikuak emandako antitermikoak eman; haurra hobeki sentituko da, baina horiek ez dute infekzioa sendatzen.
- Ez igurtzi alkoholarekin, okerrera eginen du eta.
- Ur epeletan bainatzeak eta ur epeletan bustitako belaki batekin igurtzeak mesede egiten ahal dio sukarra duenari. Hori egitea botika bat eman ondoren izanen da eraginkorra batez ere; bestela, temperaturak gora egin dezake berriz. Haurra ur epeletan dagoenean, hozten utzi ura, gorputzeko temperatura ere jaitsi dadin.
- Ez eman inoiz botikarik medikuaren aholkurik gabe.

### Pediatrarengana joan, baldin eta:

- Haurrak hiru hilabete baino gutxiago baditu.
- Temperatura 40° C baino altuagoa baldin bada.
- Sukarrarekin hiru egun baino gehiago baldin baditu.
- Haurraren egoera orokorrak okerrera egiten badu, edo bestelako sintoma batzuk agertzen badira:
  - Azalean orban gorriak (presioa eginda joaten ez direnak).
  - Garondoan zurruntasuna.
  - Konbultsio edo dardara.
  - Arnasteko zailtasuna.
  - Haurra oso haserrekor edo oso eroria badago.
- Gaixotasun kronikoren bat baldin badu: kardiopatia, babes sistema ahula...

**Zure osasun etxeko erizainarekin hitz egin dezakezu edozein zalantza izanez gero.**

## Irakurleak mintzo

## Udal korporazioa elizara?

Joxe Fermin LIZARRAGA LAZKANO (LEITZA)

Askatasunez pentsatzeko eskubidearen aldekoentzat, eliza eta botere zibila bereiztea mendeetako borroka izan da. Zoritxarrez (Espainiaren menpe izatearen beste zama bat dela uste dut) Beti daukate agintariak aitzakiaren bat bereizkuntza hori gauzatu ez dadin. Ugariak dira bereizketa ezaren adibideak; bat-batean bururatzen zaizkit: Hezkuntza publikoan erlijio katolikoak beste ideologi guztien gainetik doktrinatzeko daukan eskubidea, gotzaingoak aukeraturako irakasleen zerrenda paraleloak, hatzez izendatutako irakasleei irakaskuntzako zerrenda arruntetan balia ditzaketen puntuak ematen dizkietenak (non gelditzen ote dira berdintasunean lehiatu beharreko gaitasunak?); Zergetan, berriz, Vatikanoko eta estatu espainiarrek adostutako konkordatuaren pribilegioak; azken urte hauetan elizak jabetzan hartutako eraikinak eta lurrak ...

Pribilegioek berdina segi dezaten, erabilienetako aitzakietako bat usadioarena izan ohi da. Usadio zahar horiek jendearen borondatez sortu direla esatea, berriz, tranpa egitea da: Inkisizioa, Nazional Katolizismoa ... Neronek ezagutu dut: igandeko mezetara, prozesioetara, aitorza egitera ere, beldurrak bultzatuta joaten zen adin guztietako jendea; nor ausartzen zen duela berrogei urte ateoia zela esatea? ni baino zaharragoek ezagututakoa, berriz ...

Hogeita batgarren mende honetan, bada garaia, gure esku dagoen heinean behintzat, bereizkuntza hori gauzatzeko. Aurtengo Leitzako pestetan elizaren gaiak programatik kan-

po uztea, batik bat sinbologikoa, zentzu horretan emandako pauso txiki bat iruditu zait.

Komunioa hartaraztea bada zerbait, baina errotarriekin hartaraztea... Hurrengo gaiak, beharbada, korporazioaren gehiengoa eta segizioa elizara ez joatearen erabaki hori azkartu besterik ez du egin izan. Baldin badakite, korporazioa ez joatearen aurka idatzi dutenei, azken urteetan, txistulari, dantzari, eta korporazioaren tar-tean, elizako bidean sartu ziren guardia zibilak, beraien kabuz edo konbidatuta sartu ziren galdetu nahi nieke; eta bigarren aukera balitz, nork eta zergatik, konbidatuta? Beharbada, joatearen alde diren askori ere interesatuko zaie erantzuna.

## Odol jariozko sukarra (sukar hemorragikoa) eta batzuetan bere eragile diren akain edo kaparretaz jakin beharrekoa

Joxe Joaquín ORONÓZ ZABALETA

Bolada honetako notizi gaia izanik, orain dela gutxi Ttipi Ttapan artikulu interesgarri bat azaldu da: "Zer egin kaparrei aurre egiteko?" (669 zkia. 2016-09-01. 7. Orria).

"Kaparrek kentzeko hauxe egin" izenburua duen atalean nire ustez garrantzitsua den datu bat ez da aipatzen, abeltzain arlotik ikasitakoa: Behin akaina itsatsitakoan:

1. Lehendabiziko pausua sukaldeko olioarekin bustitzea da. Bost bat minutu igaro ostean, motelduta gelditzen da. Horrela, askoz zailagoa da akaina edo kaparraren burua azalpean gelditzea. (Infekzioa burua barruan gelditzearekin hasten baita).



## Bota bertsoa

Ninbe URTXEGI URRRA (Igantzi) • Doinua: Itsasoari begira  
Baztan-Bidasoko 29. Bertsopaper lehiaketan 2. saria (11-14 urte)

## Bortxaketa

Bortxaketa edo hilketaren bat ez du inorrek atsegin pertsona batek bertzeari ezin bere bizitza desegin norbaitek inoiz bere buruari gai honi buruz galdegin hau dena alde batea uzteko hainbat esfortzu ta alegin edozein hizkuntz, edozein sexu ezetzari ez uko egin.

Hainbat eraso jaso beharrez zergatik ez hitz egin bortizkeririk gabe guztia molda dezakegu berdin ahaztu behar ditugu jada ostiko, oihu edo min besteentzako ez gara inor ez sorgin eta ez panpin ibil dezagun denak burua hau azkena izan dadin.

Autokontrol pixka bat beharrezkoa da eta ez da tiraka hasi behar olioarekin motelduarazi ezean. Moteldu gabe dagoenean, ukitu hutsarekin aurreko hankak lapa bezala itsasten baititu haragian. Nahiago du sabela puskatzen utzi, hankak haragi barrutik askatu baino.

2. Behin moteldutakoan, artikulan oso txukun lantzen diren puntuekin jarraitu, besteak beste, lymeren eritasunaz aipatzen denarekin.

Besta hauek denen artean egiten ditugulako, berriro ere eskerrik asko eta hurrengo urterarte.

## Motxila solidarioa errefuxiatuentzat

Josune NARBARTE ETXEGIA (GOIZUETA)

Eskerrik eman nahi ditut, aste honetan, ume errefuxiatuen alde, "motxila solidarioak" biltzen lagundu duzuen guzietari, eskerrak zuen borondatea konpartitu ahal izan zutelako.

Kanpamenduan dauden ume horiek, aurtengoan ere, ez dute negu xamurra izango, baina zuen, bufanda, eskularru eta zapelei esker, hobekixio egongo direla pentsatu nahi dut. Haiek ez dute, ikasturterik izango, baina zuen liburuxka, kuaderno, eta margoeri esker, beraien momentu ilunak momentu batzutan behintzat, koloreztatuko dituzte. Kanpamenduko umeek eskertuko dute. Irrifar bat beren aurpegitan ikusteak mereziko du. (asko balioko du).

Berriz ere, eskerrik asko DENEI, batez ere Goizuetako Eskolako ume, irakasle eta gurasoei. Guretzat "pixkot" dena beraientzako asko delako.

## Agerratik eskerronez

Agerrako Besta Batzordea

Berriro ere Agerrako bestak pasatu dira. Aurten bereziak izan dira, izan ere besta hauren buru, bihotz eta arima zena, Jabierto Telletxea falta genuelako. Besta hauek beretzat omenaldi bat izatea nahi genuen eta jaso dugun laguntza guztiari esker, oraingoan ere besta arrakastatsuak antolatuta ahal izan ditugu.

Bestak antolatzen, batean eta bertzean lanean, parte hartzen, diruz laguntzen, materiala utzi... modu batera edo bertze gurekin egon zareten guztioi, gure eskerrik beroena adierazi nahi dizuegu.

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.eus

Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58 Faxa: 948 63 54 57



**Prentsatik bildutakoak**



«Desnutrizioa edo malaria zuen haurra ikusten zenuen goizean, baina arratsean dantzan dena ematen. Nola dauden eta gero nola gozatzen duten, ze alaitasuna!».  
«Ezin dira hango guraso eta umeen arteko erlazioak ulertu... Ez da hemen bezala, han bizirautea da kontua eta arroz plater bateko aukera badu guraso batek berak jaten du lehenengo».

**Leire ELZAURDIA**  
Berako gaztea Kamerunen  
GAUR 8 2016.09.10



«Turismoa goraiatua da gaur egun. Baina zer da turismoa? Baztanen 10.000 bisitari izan ditugu aurten. Gero eta gehiago datoz, baina sasoko enplegua da, prekarioa, hortik jende gutti bizi da. Gainera, turista horietako batzuek etxebizitza erosten dute, ez dute bideratzen alokairurako, eta etxebizitzaren arloan arazo larriak sortzen dituzte».

**Joseba OTONDO**  
Baztango alkatea  
ARGIA 2016.09.18

**11 galdera labur**

**Gaztea beti gazte?**

Bai, azkenean zenbaki batek ez du horrelako garrantzia... sentitu eta bizitzeko moduaren arabera da gehiago.

**Denbora librean zer egitea duzu gustuko?**

Dantzatzea eta musika entzutea asko gustatzen zait eta baita lagunekin egotea eta denbora pasa ibiltzea ere.

**Urtaro bat?**

Urtaro guztiek badituzte bere berexitasunak baina uda izan daiteke politena: eguraldi ederra, hondartza eta oporrak tarteko gehien gozatzen duguna.

**Eguna edo gaua?**

Planaren arabera, bata edo bertzea.

**Gartzainek zer du faltan?**

Herriari bizitza emango liokena plazan ostatu bat edukitzea izango litzateke.

**Eta zer du soberan?**

Deus ere ez. Bertzela ez litzateke Gartzain izanen.

**Gartzaingo bestetatik zer da gehien gustatzen zaizuna?**

Lehendabiziko eguna, zopak. Deno egoten gara egun hori iristeko zain eta giro aparta egoten da.

**Baztango azken bestak dira...**

Bai hala da eta nahiz eta herri txikia izan giro ezin hobea egoten da. Ez bazara etortzen damutuko zara!

**Bidaiatzea gustuko duzu?**

Noski baietz!! Leku ezberdinak ikusi eta jende berria ezagutzeko aukera ezin hobea da eta. Portugal bisitatzea pila bat gustatuko litzaidake eta Madrilera *El rey leon* ikuskizuna ikustera ere bi aldiz pentsatu gabe joanen nintzateke.

**Zer behar duzu zoriontsu izateko?**

Niretzat zoriontasuna ez dago gauza edo egite konkretu bati lotuta, baizik eta eguneroko bizitzak duen xarmari..

**Ametts bat?**

Erasmusera joatea, esperientzia zoragarria izan daitekela uste dut.



**María TELLETXEA → Gartzaingo gaztea**

**sarobe**  
gozotegia okindegia  
pº de eztegara 25 bajo 31780 berá (navarra) t.948 63 08 99 www.sarobe.net

**ANTZUZELAI S.L.**  
ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK  
Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587  
Irungo errep. BERA  
www.antzuzelai.com  
info@antzuzelai.com  
Aintzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, erlaizak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiaik
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA

Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

**MARITX**  
Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak  
T. (0034) 636 617 450

**zalain**  
JATETXEA RESTAURANTE  
Zalain Auzoa z/g  
31780 Bera  
t. 948 631 106  
w. www.zalain.info

**Goieko** INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTUAK  
**DESINBERA**  
DESINFEKZIOAK • DESINSEKTAZIOAK • DESARRATOITZEAK  
Zure inguruak klase guzietako insektuz (xomorro, zinurre, armiarma, kuku...  
eta arratoi xagutzoz garbitu nahi baduzu daitez! Termita eta Pipien tratamenduak  
T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

# BERA

KULTURA → IRAILAREN 18AN

## 20 margolarik parte hartu dute aire libreko XII. lehiaketan

Logroñoako Jose Ignacio Amelivia izan zen garaile

### TTIPI-TTAPA

22 urtez egin gabe egon ondotik, iaz berreskuratu zuen Gure Txokoak Berako margo lehiaketa aire zabalean. Aurten segida eman eta hamabigarren edizioa antolatu dute eta guztira hogei margolarik beraien lanak aurkeztu dituzte irailaren 18an.

Teresa Rey eta Carmen Rey galeristek eta Oaia Peruarena, Josu Urtizbera eta Juan Car-

los Olaetxea margolariek osatutako epaimahaiak lana gogotik egin behar izan zuen, aurkeztutako lanen kategoria handia baitzen. Azkenean, 900 euroko lehen saria Logroñoako Jose Ignacio Amelivia margolariaren lanari ematea deliberatu zuten. Bigarren saria (600 euro) Bilboko Carlos Espigak eskuratu zuen eta 400 euroko hirugarren saria, San Martin de Unxeko Jesus Ukar Muruzabalek. Hauetaz gain, diru saririk gabeko bi aipamen berezi egin zituen epaimahaiak Piedad Santamaria eta M<sup>a</sup> Teresa Duranen



UTZITAKO ARGAZKIA

Margolari sarituak, epaimahaikide, antolatzaile eta sari emaleekin lamotenean.

lanendako. Aitor Elexpuru zinegotzia Udalaren izene-

an, Patxi Castillo Gure Txokoako presidente-ordea eta Lupe Mendi-

gutxia lehiaketaren antolatzaileak izan ziren sari banaketan.

### URRIAREN 8AN

## Kirol Eguna egingen dute Toki Ona kiroldegian

Toki Ona Kiroldegian eta inguruetan ospatuko da Berako Kirol Eguna urriaren 8an. Goizeko 10etatik aitzinera hainbat aktibitate probatzeko aukera izanen da, hurbiltzen den edozeinentzat (saskibaloia, Kenpo kai, herri kirolak edo, Urdiberraren eskutik, kirol zuzendu ezberdinak: ciclo indoor, entrenamendua

suspentsioan, aerobika... Gure Txokoak herrian barna ibilaldi bat (11:30ean) eta bizikleta joku ezberdinak (12:00etan) ere proposatuko ditu. Haur, gazte eta helduei zuzendua dago. Berako Udal Kirol Batzordea osatzen duten kirol elkarteak eta udal kirol zerbitzuak antolatu dute.

Orain helbide berrian:  
Altzate, 5  
BERA

Zatoz eta ikusi, aukera zabala duzu eta!

Oinatz

Oinetakoak, euritakoak, gerrikoak, zapiak, karterak Altzate, 5 - 31780 BERA • T. 948 630 120

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 8AN

# Lehen urteurrena ospatuko du Goldatz Emakume feminista taldeak

Solasaldiak, bazkaria, triki-potea eta kontzertuak izanen dituzte

## TTIPI-TTAPA

Goldatz Berako Emakume Talde feministak lehen urtea bete du eta urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu urriaren 8rako.

12:00etan, Idurre Eskisabel eta Lorea Agirrek *Euskara eta feminismoa bidaide* solasaldia eskainiko dute Altzateko Merkatu Plazan (euria eginen balu, Beralandetan).

14:30ean bazkari begeterianoa eskainiko dute Gure Txokoa elkartearen. Txartelak 15 eurotan salgai daude Errekalde eta Botxo ostatuetan. Eroste azken eguna urriaren 3a, astelehena izan da. Bazkalondan triki-potea eginen dute herriaren barna. 20:00etatik aitzinera Mice eta Ana-

riren eskutik kontzertuak izanen dira Katakuko terrazan.

## Manttale Ttiki

Manttale Mendi Lasterketa Taldeak Manttale Ttiki eskolaren denboraldi berri bati ekinen dio urrian. 2016-17 saioa antolatzeko gurasoendako bilera informatiboak eginen ditu irailaren 30ean, Berako Gure Txokoa elkartearen lamoteneko egoitzan. Deialdia, ortziralean 19:00etan izan da 2004 eta 2010 urteen artean jaiotako umeentzat eta 19:30ean, 2003 urtean edo aurretik jaiotako gaztetxoentzat. Beraien seme-alabak Manttale Ttiki eskolan hastea nahi duten guraso guztiak gonbidaturik daude.

## Esnearen Liga


Nafarroako Esnearen Ligako Berako taldearen hurrengo bilera urriaren 10ean, astelehena 17:00etan eginen dute Beralandetan. *Nola hasi elikadura osaga-*



UTZITAKO ARGAZKIA

## Agerra mendi taldea Iparlan

Agerra Mendi Taldeak irailaren 11n mendi ateraldia egin zuen Iparlara (1.049 metro). Eguraldi zoragarria eta primeran pasa zuten, bidenabarkoan Arizakuen bazkalduz. 12 km luze eta 890 metroko desnibela duen ibilaldia egin zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Hainbat emanaldi Ertz 2016en baitan

Ertz-en baitan hainbat emanaldi eskaini zituzten irailaren 9tik 11rako asteburuan, Ertz-Audiolabek antolatuta, Kultur Batzordearen eta Udalaren laguntzaz. Ortziralean Gargara (Ibon RG & Miguel A. Garcia), Ainara Legardon eta Niño de Elche aritu ziren. Larunbatean, Oier Etxeberriaren saioaren ondotik, Maialen Lujanbio, Niño de Elche (biak argazkian) eta Beñat Achiary eta igandean Amorante, Ainara Legardon eta Niño de Elche.

*rriarekin bularra ematen dudan bitartean?* galderari erantzuna ematen saiatuko dira. Bilerak irekiak eta doakoak dira, interesa dutenentzat eta haurrak ere ongi gietorriak dira.

## Ba al zenekien

Nafarroako Artxibategi Nagusiak antolatutako *Nafarroa, iparretik hegora* mikroerakusketatik zikloko lehen erakusketa Berako herriari eskaini diola. **Carlos III erregearen agindu bat, Independentzia Gerran egindako grabatu bat eta 1880ko Lore Jokoen kartela ageri dira.**



**F. LANCHAS**  
Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailea  
jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

**ALBERTO RETEGI**  
abokatuak  
abokatuak  
© 948 630 763 · Alzate, 17 · BERA

**xirgil**  
jaione goya  
ileapaindegi mistoa  
Alzate 1, 31780 BERA  
948 631 462

## LESAKA

KULTURA → URRIAREN 31 ARTE AURKEZ DAITEZKE

# Argazki lehiaketa antolatu du aurten ere Beti Gazte elkarteak

Azaroaren 10etik 30era ikusgai jarriko ditu aurkeztutako lanak

## Aitor AROTZENA

Beti Gazte elkarteak argazki lehiaketa antolatu du aurtengoan ere, udalaren laguntzarekin. Honela, nahi duten afizionatu guzietan har dezakete parte eta lanak urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira Beti Gazte elkartearen (Behoko Plaza 9, 31770 Lesaka), gisa honetako lehiaketetan ohikoa den sistema erabiliz.

Argazkien gaia librea izanen da eta lau sari emanen dituzte. Lehenbiziko saria, 350 euro eta trofeoa izanen da eta bigarrena 250 euro eta trofeoa. Gainera, herriko egileen artean argazkirik onenari 200 euro eta trofeoa emanen zaio eta sari berezia, 200 euro eta trofeoa izanen da kirol argazkirik onenarentzat.

Epaimahaiak azaroaren 10ean emanen du erabakia eta egun berean hasita azaroaren 30era arte, erakusketa izanen da Beti Gazte elkartearen egoitzan.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

## 140 txirrindulari mendi bizikleta ibilaldian

Gazte elkarteak antolatutako Lesakako mendi bizikleta ibilaldian 140 txirrindularik parte hartu zuten irailaren 18an. Bi ibilbide izan zituzten aukeran: 42 kilometro luze eta 2.000 metroko desnibela duena luzeena eta 28 kilometro luze eta 1.000 metroko desnibelekoa laburrena. Gehienek luzea aukeratu zuten eta asteburuko euriarengatik zenbaitetan lohiarekin topo egin bazuten ere, arazorik eta istripu handiegirik gabe osatu zuten proba ez lehiakorra.

## URRIAREN 6AN

### Errioxara bidaia antolatu du San Fermin elkarteak

San Fermin jubilatuta eta pentsionisten elkarteak Errioxara bidaia antolatu du urriaren 6rako. Heldu den ortzegun goizeko 7:30ean abiatuko dira autobusean eta Erreniegan gosalduko dute; Arnedilloko merkatua ikusi, Logroño bisitatu eta bazkalduko dute. Bazkalondoa, etxera bueltan, Garesen ere geldituko dira.

Izen-ematea jubilatuen egoitzan egin daiteke urriaren 2ra arte, 30 euroren truke, bazkarian haragia edo arraina nahi duten zehaztuz.

Bertze aldetik, aurten 85 urte bete eta Urrezko edo Diamantezko Ezteiak (50 edo 60 urte ezkondurik) omentzeko ospakizuna ere prestatzen ari da San Fermin elkarteak. Egoera horretan daudenek urriaren 9a baino lehen eman behar dute izena erretiratuen egoitzan. Ez da beharrezkoa elkartearen bazkide izatea. Ezteien kasuan, ezkontza-data ziurtatzen duen familia-liburuaren fotokopia aurkeztu behar da eta 85 urtekoek Nortasun Agiriaren fotokopia.

## FLASH

### Gero Axular dantza taldea

Gero Axular dantza taldeak *Itzal galdua* dantza ikuskizuna eskainiko du urriaren 1ean, larunbatean 19:00etan Harriondoan. Sarrera 10 euro gostako da (aitzinetik turismo eta kultura bulegoan eta larunbatean sarreran).

### Ernesto Garziaren margo erakusketa Taupada lokalean

Uda ondotik Taupada lokala (Eltzeta 18an) berriz ere martxan jarriko du Bihotzkada kolektiboak. Ernesto Garzia hendaieraren *Devenires y puntos de fuga* margo erakusketa ikusgai izanen da urriaren 8tik 23ra, ortzegunetik igandera, 16:00etatik 20:00etara.

### Baiona eta herriko abesbatzen emanaldia elizan

Baionako Enara Abesbatzak eta Lesakako abesbatzak emanaldia eskainiko dute urriaren 8an (larunbata), 20:00etan San Martin elizan.

### Aritxulegiko etxola errentan

Aritxulegiko etxola errentan eman nahi du Udalak. Proposamenak urriaren 7ko 13:00ak baino lehen aurkeztu behar dira udalean. Litzitazioaren hasierako prezioa 30 eurokoa da eta etxola egokitzeko lanak maizterren kontura doaz.

**BEKO**  
LOREAK ETA LANDAREAK  
Frain Auzoa - LESAKA  
Tfnoa: 948 637 826

**IRU BIDE**  
Erretegia · Asador  
Bitorriana, 3 - Lesaka  
Tel: 948 637 127

- Lentzeria  
- Bainujantziak  
- Mertzzeria  
- Jantzi tipikoak  
- Peñen bluskak  
**kattogorria**  
lentzeria mertzzeria  
Behoko plaza 10 31770 Lesaka  
T. 948 627 514

**ZUBIONDO**  
Jatetxea  
sagardotegia jatetxea  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
Tlf: 948 625 474

GIZARTEA → UDALARENTZAT DIRU SARRERA

# 36.255 euro jasoko ditu Usategietako ehiza postuen enkantetik

Hasierako prezioa 2.170 eurotan hobetu dute

**Iruñe ELIZAGOIEN**

Irailaren 13an egin zen Etxalarko Usategietako ehiza postuen bigarren enkantea. Sestaemandako 12. eta 21. postuak eta lehenbiziko enkantean hutsean gelditu ziren bertze sei postu ere sartu ziren bigarren enkante horretan. Azkenean, 36.255 euro bilduko ditu Udalak, hasierako prezioa baino 2.710 euro gehiago.

Zehazki, sesta eman ondotik, 12. zenbakiko postuaren lizitazio-prezioa 2.015 eurotan gelditua zen eta 21. postuarena 2.595 eurotan.

Hamabigarren postu horrengatik izan zen lehiarik handiena, 100 tanto eskaini baitziren astearteko enkantean eta azkenean 3.015 eurotan eman zen. Hogeita batgarren postuarengatik 10 tanto eskaini ziren eta 2.695 eurotan eman da.

Irailaren 3an hutsean gelditutako sei postuak ere sartu ziren bigarren enkante honetan ere. 13. Postuaren hasierako prezioa 1.425 eurokoa zen eta 54 tanto eskaini zirenez, 1.965 eurotan eman da azkenean; 15 eta 19. Postuaren hasierako prezioa 900 eurokoa zen eta lehenbiziko prezio berean eman zen eta bigarrenarengatik 60 tanto eskaini ziren, 1.500 euro eskuratuz denera; 16, 17 eta 18. Postuaren ha-



ARGAZKIAK: ITSASO ELIZAGOIEN

## Giro ederrean joan dira Urritzokietako bestak

Bertze urte batez umore onik ez zen faltatu Urritzokietako bestetan. Irailaren 18an 60 lagun inguru elkartu ziren Sainduneko zubian egin zuten Asauan. Arratsaldean egin zituzten jokuak ere hagitz arrakastatsuak izan ziren. Ilunabarreko musika eta gaueko afariarekin hurrengo urtera arte agurtu zituzten bestak.

sierako prezioa 700 euro bertzerik ez bazen ere, bigarren enkantean ere hutsean gelditu ziren.

## Larraburuaren 25. Urteurrena

Aurten Larraburuajubilatuaren elkartearen 25. Urteurrena dela eta urri-

aren 1ean Xaretara bidaia eta bertan bazkaria egingen dute. Goizeko 9:30etan abiatuko dira herri sarrerako apartakalekutik, Ainhoako txokoak ezagutu, Urdazubiko leizeak bisitatu eta bazkaria egingen dute Urdazubin. Arratsaldean berriz, Zugarramurdiko

Sorginen museoa ikusteko aukera izanen dute. Irteera honen prezioa 30 eurokoa da, baina bazkide ez direnek leizeak eta museoko sarrera ordaindu behar dute. Irailaren 27 arte izanen da apuntatzeko epea 948635166 telefonora deituta.

**USOA** Nekazari kooperatiba  
T. 948 635 214  
ETXALAR

Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak  
• Ongarriak • Burdin tresnak  
• Insektizidak • Edariak • Haziak

**KALEFAKZIOA eta IBILGAILUENDAKO GASOLIO MERKEENA**

ETXES ETXEKO BANAKETA

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA  
E N E E K  
NEKAZARITZA EKOLOGIKOA  
NEKAZARITZA EKOLOGIKOA  
NEKAZARITZA EKOLOGIKOA  
Inskripzio Zenbakia 1435

**XAGU LIBURUDENDA**  
Tel. / Fax 948 638 232  
Koskontako bidea, 7 (osasun-zentroaren parean)  
31770 LESAKA

- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBtik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

TTIPI-TTAPA  
ALDIZKARIA  
SARE SOZIALETAN

**facebook**

www.facebook.com/ttapi.ttapa  
www.facebook.com/ttapi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

**ERREKALDE**  
PLATER KONBINATUAK OSFATUA  
PINTXOAK  
BOKATXAK  
TFNoA: 948 630 259 BERA

## ARANTZA

HEZKUNTZA → 2016/2017 IKASTURTEA

# Zortzi haur izanen dira ikasturte honetan Pelle-Ttikin

Komuneko teilatuan lanak egin dituzte eta bazkaltzeko txokoa sortu dute

## Nerea ALTZURI

Abuztuko oporraldia- ren ondotik, hilabete honetan abiatu dute ikasturte berria Pelle-Ttiki Haur Txokoan. Beñat, Inge, Izei, Jare, Oier eta Yuri hasiak dira eta ilbeltzetik aitzinera, Xuban eta Kattalin taldera batuko dira. Koldobikek begirale lanetan segitzen du.

Iaztik, guraso batzuek hala eskatuta, ordute-

gia 09:00etatik 14:30era luzatua da. Gelditzen direnei bakoitzak bere etxetik eramaniko bazkaria ematen zaie eta sies-tako lo kulumkan hartzen dituzte gurasoek.

Bertzalde, zenbait lan ere egin dituzte Pelle-Ttikin. Komuneko teilatua moldatu dute eta bazkaltzeko txokoa sortu. Urtez-urte, hainbat txoko eratu dituzte eta al-tzari guztiak haurrei egokitu dituzte. Urteekin haurrek erosotasuna eta konfidantza sentitu ditzaten, inguru polita lortu dute. Pikler-Lozzy eskolan oinarritzen da lan egiteko modua, kalitateko zaintza helburu dutela.



## Ba al zenekien

Arantza Rocken lanean aritutakoek afaria egin zutela irailaren 16an Ekaizta Elkartearen? 15 neska gazte elkartu ziren eta giro ederrean egon ziren.



ARGAZKIAK: KOLDOBIKE GOROSTIZA

1-3 urte bitarteko haurrentzako inguru polita egokitu dute Pelle-Ttikin.

## ESKOLAKO GURASO ELKARTEA

Asteazkenetan ere jantoki zerbitzua eskainiko dute

Guraso Elkartearen ere, ikasturte hasierako lanetan ari dira. Sukaldari eta zaintzaile lanetarako deialdiak egin zituzten eta aurkeztu zirenen artean bozkatu zuten gurasoek. Botoak zenbatuta, Maixe Oskozek sukaldari lanak eginen ditu oraingoz abendura arte, Sagrario ordezkatzuz.

Bertzalde, aurten ume gehiago dagoenez, hirugarren zaintzaile bat kontratatuko dute. Ixabel Lukanbio eta Edurne Iparragirrerekin batera, Loli Iraola ardura horretan ariko da.

Jangela zerbitzua urriaren 3an hasiko da eta ikasturte honetan asteazkenetan ere haurrek jantokian bazkaltzeko aukera izanen dute. 62 haur izanen dira eskolan bazkalduko du-

tenak. Hiru txandatan eginen dute: Haur Hezkuntzakoek 12:50etik 13:30era; Lehen Hezkuntzakoek 13:30etik 14:20ra, eta azkenik, DBHkoek 13:50etik 14:20ra.

## JUNTA BERRITU DUTE

Eskolako Guraso Elkartearen batzordea irailaren 19an berriro zuten. Denetara, zazpi lagunek osatzen dute. Joan den urtean sartu ziren Iñaki Alustiza, Itsaso Bereau, Olatz Irigoien eta Maite Lujanbiorekin batera, Araitz Urrutikoetxea, Belen Mutuberría eta Izaskun Maiz aukeratu dituzte aurten. Ana Maeztu, Beatriz Taberna eta Koldobike Gorostiza atera dira.



# armadenda

# andueza



Paotxa Eraikina • Gorostiaga, z/g • Anaka industrialdea  
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN  
c.andueza@euskalnet.net

GIZARTEA → LIFE-IREKIBAI PROGRAMAREN BAITAN

## Endarlatsako presa eraitsi dute eta inguruan lanean ari dira

Bide Berdean arretaz ibiltzeko gomendioa eman dute

### TTIPI-TTAPA

Duela aste batzuk San Martingoarekin egin zuten bezala, izokin arrantzaleek hain ongi ezagutzen duten Endarlatsako presa botatzeko lanetan ere hasi dira irailaren 13an. Excavaciones Corella SL enpresak eginen du lana, 71.995,87 euroren truke. Horretaz gain, aipatutako presen eraistearen jarraipen geomorfologikoa egiteko asistentzia teknikoa Euskal Herriko Unibertsitatea egiten ari da 54.500 euroren truke.

Europako Batzordeak diruz laguntzen duen Life 2014-2020 Planaren baitan, Life Irekibai programaren barne-

an dago presa hauek botatzea, oztopoak kentzerakoan erreketa bizi diren espezieen harat-honatak errazteko helburuarekin. Orain, Iturengo pizifaktoriko presa botatzea geldituko litzateke.

Bera eta Baztango Ehiza eta Arrantza elkarteek Endarlatsako presa bota orde, San Martingoa bota ondotik Endarlatsakoaren ateak zabaltzea proposatu zuten, bi urtez zer eragin duen ikusteko.

### ARRETA BIDE BERDEAN

Lanak direla eta, Cerderna Garalur eta Baztan-Bidasoaldeko udalek erabiltzaileei Bidasoko Bide Berdean arretaz ibiltzea gomendatzen diete eta bidea erabiltzen dutenei barkamena eskatzen diete lan hauek guztiak sortu ditzaketan eragozpenengatik.



UTZITAKO ARGAZKIA

Endarlatsako presa bota dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

### 2016 Bidea ibilaldiari ongietorria

Donostia 2016 Kultur Hiriburua egitarauaren baitan, 2016 Bidea egiten ari dira, martxoaren 27ik urriaren 30era, igandero, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Iparraldea 32 etapatan zeharkatuz (ia 600 km). Irailaren 11n, Oiartzun eta Sara arteko bidea egin zuten. Bortzirietan harrera egiteko, antzezlan eskaini zieten Barojatarren Itzea etxe inguruan eta Lesakako ezpatadantzariet dantza San Miguel zubian. Irailaren 17an Sara eta Zugarramurdi arteko bidea egin zuten eta irailaren 25ean Urdazubi eta Kanbo artekoa.

**Urriak 15 DASTAKETA**  
10:00-12:00  
Kooperatiban (Irun)

## PIPER ERREEN SALMENTA

### LARRAGAKO PIPERRAK

(Irunen erretzen ditugu)

- Momentuan erretzen ditugu
- Kontserban nola ipini erakutsiko dizugu
- Nahi izanez gero guk egindakoak eros dezakezu
- Barietateak: pikillo, Najerano, kristal, piko-Medavia

**SALMENTA**  
Nekazarien Etxea - Urdanibia Plaza, 7 - IRUN  
Cooperativa del campo - Olaberria auzoa - IRUN  
(Trinkete Borda jatetxetik kilometro batera)

Zure eskaera etxera eramango dugu

Astelehenetik ortziralera: 08:30-13:00 eta 16:00-19:30  
Larunbata: 08:30-14:00

Tel. 645 636 614  
948 040 094  
648 260 137

# SUNBILLA

KULTURA → URRIAREN 1EAN

## Zortzigarren urtez jaialdia eskainiko dute herriko dantzariak

Malerreka kantuz eta bertze zenbait ekitaldi ere izanen dira

### Maider PETRIRENA

Zortzigarren urtez ospatuko da Sunbillako Dantza Jaialdia. Hau urriaren 1ean izanen da frontoian, larunbat arratsaldeko 7:30ean hasita. Ohikoa denez, ttikienetatik hasi eta helduak bitarte, dantza saio ikusgarria eskainiko dute.

Horrez gain aipatuko dugu egun ederra izanen dela Sunbillan urriaren 1ekoa. Larunbat eguerdian, Malerreka kantuz ibiliko da herrian barna. Ondoren luntxa eskainiko dute Ulibeltzak elkartean eta arratsaldeko 5etan, berri Mendaur Trikitixa-Pandero eskolakoek emanaldia eskainiko dute herrian barna.

Animatu posible duzuenak gure herrira etortzera, egun ederra izanen da eta.

### Kirol kontuak

Kirol arloan, Hondarribiako Ama Guadalupe arraun taldeak azken txanpan ez zuen suerte haundirik izan eta Kontxako banderana hiz San Migel ligan, bietan bigarren postua lortu dute azkenean. Zorionak, halere, taldeari eta berexiki Iker Marizkurrena sunbildarri.

Bertzetik aipatu Caja Ruralek antolatzen duen BTTko azken karreran, Arazurin, Koldo Herrerak 3. postua lortu zuela. Saikapen orokorrean ere halaxe gelditu da. Irailaren 24ko asteburuan Diario de Navarrak antolatzen duen Openean ere parte hartzekoa zen, beraz, guztira bederatzi asteburuz segidan karrerak izan ditu.

Eneko Herrerak irailaren 18an esperientzia polita bizitu zuen, modalidade berri bat probatzen: Kilometro Bertikala! Beraingo proba gogorrean 87. izan zen saikapen orokorrean: junior mailan Euskal



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Mendaur trikitixa-pandero eskolakoak ere ibiliko dira larunbat arratsaldean karriz karriz.



ARGAZKIA: EDURNE BARBERENA

### Eskolako lanetan hasi berri diren neska-mutikoak

Aurreko alean aipatu bezala, aurten 7 neska-mutiko hasi dira lehen aldiz eskolan. Zutik, ezkerretik eskuinera: Aitor Sanchez Olariaga, Jone Bertiz Ariztegi, Aroa Ibarra Jaimerena eta Alba Igoa Arretxea. Beheitiko aldean ezkerretik eskuinera, Ane Jauregi Gartxitorena, Urki Bertiz Gragirena eta Aimar Bertiz Babace.

Herriko 5. eta Nafarroko 4. izan zen! Orain, esperientzia eta modalitate berriekin segitzeko,

mendi duatloiak eginen ditu. Zorionak denek!

Kirol kontuekin akitzeko, irailaren 30ean,

ortzirale arratsaldeko 4:30ean Kenpo-Kai probatzeko aukera izanen da Sunbillako frontoian.

**Anterola**  
Tekniko instalatzailea  
ITURGINTZA · GASA  
KALEFAKZIOA  
Zerbitzu anitzak &  
Gremioen koordinazioa  
**629 449 602**

ONGI PASA BESTAK!  
**Bidasoa**  
GASOLINDEGIA  
A, B eta C motako  
GASOLIOA  
ETXERA  
**24**  
ORDUZ  
Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

**Lizun**  
GAZTANDEGIA  
Sunbilla · Tel: 948 450 862



OSPAKIZUNAK → URRIAREN 2AN

## Onddo eta Zizen Kofradiaren Eguna ospatuko dute urriko lehen igandean

Kofrade berriak ez ezik, Onddo Enbaxadorea izendatuko dute

**Mattin LARRALDE**

Aurten hogeita hiru garren edizioa beteko du Nafarroako Onddo eta Zizen Egun handiak Elgorriagan, Onddo eta Zizen Kofradiak antolatua. Urriaren 2an, igandean Elgorriagara joaten direnek onddo eta bertzelako produktuak dastatzeko aukera paregabea izanen

dute. Igande goizeko 9:30ean kalejira eta ibilaldia egingen dute kofradiako kide berriek bainuetxetik herriraino, Zubietako joaldunen laguntzarekin. 10:00etan meza ospatuko da, Abesbatzak kantatua. Ondotik kofrade berrien eta Onddo Enbaxadoren izendapena egingen dute. 11:00etan Zubietako joaldunak eta txaranga karririkarri ibiliko dira. Eguerdian, kofradien eta gonbidatuen artean ohiko onddo kaxuela lehiaketa egingen da frontoian, Juanito Mariezkurrena



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

### Ehiztariak denboraldia prestatzen

Ehiztariak prestaketa lanetan hasten diren hilabetea izan ohi da iraila. Urtero bezala mendia desbrozatu eta inguruak garbitzen dituzte, mendiari garbialdia eman eta txukun utziz. Argazkian ageri denez, lan aunitz egin ondotik lagun artean gosalduta zuten.

zenaren omenez. Txapelak, dominak eta Suenos Sanvirila kateko egonaldiak izanen dituzte sarizat. 13:00etan onddo pisutsuenaren Sanvirila txapelketa jokatuko da. Ondotik, borts saski onddo eta sari ezberdinen zozketa egingen dute, baita onddo eta Nafarroako produktuen dastaketa ere.

### FLASH

#### Herriko Ostatuan egun handia

Herriko Ostaturik festa potoloa prestatu zuen irailaren 17an: eguerdian bazkarla eta arratsean kontzertu bikaina Joseba Tapia eta Besamotzak taldearekin. Giro ederra izan zen dantza egiteko eta entzuteko eta jendea gustura egon zen.

#### Bi haur hasiak dira eskolan

Bi haur hasi dira aurten ikasketak egiten: Elai Telletxea Iturenen eta Jurgi Guerra Donezteben.

# Sampi Aragón S.A

Zonaldeko Ford  
zerbitzu ofiziala

Ford markako ibilgailuentzat  
zerbitzurik osotuenak

T. 948 450 354 | DONEZTEBE  
sampiaragon@sampiaragon.com



# DONEZTEBE

GIZARTEA → IRAILAREN 23AN ZOZKETATU DITUZTE LUR EREMUAK

## Herri baratzeetan lanean hasiko dira urritik aitzinera

Udaberrian aurkeztu zuen proiektua Udalak eta 20 lur eremu edo baratze izanen ditu

### Marga ERDOZAIN

Udalak udaberrian aurkeztutako herri baratzeen proiektua urrian gauzatuko da, 20 lur eremu edo baratze izanda.

Ekimena aurrera ateratzeko hilabete hauetan hainbat urrats eman behar izan dira: udal ordenantza sortu eta onartu, Nafarroako Gobernura igorri eta baimeak eskuratu, arkitektoak egindako memoria eta antolakuntza landu, erakusketa publikoa... Hau guztia egin ondoren, abuztuaren udalak herri baratzerako lur eremua garbitu eta txukundu du eta neurketak eta seinalizazioak egin dira. Irailaren 24an partzelak zozketatu dira. Une honetan 20 bat lagunek eskatu dute partzela. Dena den, udalak jakinarazten du herri baratzea eskatzeko oraindik aukera badela. Horretarako Udal bulegoetatik pasa behar da eta dokumentazioa bete.

### HERRI BARATZEEN ORDENANTZA

Ordenantza honen xedea udal baratzeen kontzesioa eta erabilera arautuko dituzten xedapenak ezartzea da. Erabiltzaileek zein Uda-



UTZITAKO ARGAZKIA

### Bertiz-Doneztebe lehen martxa familiarra arrakastatsua izan da

Bertiz eta Donezteberen artean Baztan-Bidasoaldeko I. Martxa Familiarra egin zen irailaren 11n. Cederna Garalur Elkarteko Baztan-Bidasoa Turismo Garapenak antolatuta eta Nafarroako Gobernuak Merkataritza eta Turismo Zuzendaritza Nagusiak – Nafarroako Erresumak lagunduta, parte-hartzaileek Bidasoako Bide Berdeaz gozatzeko aukera izan zuten. Bear Zana plazan akitu zen ibilaldia, tren txutxu, puzgarri eta hainbat sariren zozketarekin.

lak bete egin beharko dituzte xedapen horiek. Ordenantzaren barrenean honako puntu hauek jasotzen dira: aplikazio eremuak, eskumenak eta zaintza, kontzesio eta erabilerarako baimen araudia (baratzeen erabilera ematea, kontzesioa emateko baldintzak, eskaerak aurkezteko epea eta kontzesioa erabakiko duen organoa, baratzeen erabilera, mugak eta sarbideak bere horretan mantentzea, erabiltzaileek erabilerak bertzerentzea, aprobetxamendu-epea, kanoa, fidantza, autoak erabiltzeko debekua, ureztatzeko uraren erabilera, baratzezaintza ekologikoa bultzatzea); erantzunkizunak, (kal-

teak eta galerak ordaintzea, kalteak konpontzea presazko egoere-

tan...) arau-hausteak eta kontzesioarekin bukatzeko arrazoiak.

### KULTURA

## Udazkenarekin batera agenda itzuliko da

Udako oporraldiaren ondoren, Udalak agenda koordinatu eta hainbat ekitaldi antolatzeari ekin dio.

Iaz bezala, hainbat talde eta norbanakoen laguntzaz osatuz eta koordinatuz antolatuko da agenda eta musika, zinea, ipuinordua, ipuintxokoa, antzerkia, ikastaroak, kirol jarduerak... izanen ditu. Toki berezia izanen dute egun esanguratsuek: azaroko feriek, azaroren 25ak, abenduaren 3ak, Santa Luzia eguneko feriak, eguberriek, inauteriek...

### BERTSO MARRAZTUAK

Euskara Zerbitzuak antolatutako Kultur Ibilaldiaren barrenean urriaren 9an (igandean), 18:30ean Herriko Ostatuan *Bertso marraztuak* eki-

taldia antolatuko da. Unai Gaztelumendi karikaturgile eta Amets Arzallus eta Maialen Lujanbio bertsolariak emanaldi berezia burutuko dute.

### IPUIN TXOKOA

Urriaren 4an Ipuin txokoak ikasturte berria hasiko du. Maiatzera bitarte irakurletasuna sustatzeko liburutegian burutuko den ekimen honetan dantza, musika, ahozkotasuna, hizkuntz desberdinak...berriro protagonista izanen dira. Ipuin txokoa, Haize Loirak zuzendutako emanaldiak asteartero goizeko 11:00etatik 12:00etara burutuko dira. Ipuin txokoak 0-3 urte bitarteko umetxo eta helduendako hitzordu garrantzitsua izan nahi du.

### FLASH

#### Hiru gazte kontratatuko ditu Udalak herri lanetarako

*Fondo de Garantia Juvenil* delako programaren barrenean Udalak lan eskaintza luzatu du. Programa horretan parte hartzen duten gazteen artean hiru langile aukeratu dira herri lanetarako. 30 urtez azpiko gazte hauek sei hilabetez kontratatuak egonen dira eta Enplegu Bulegotik tutoretzaren jarraipena burutuko zaie.

#### San Migel eguneko ospakizuna

Urtero egiten den bezala, San Migel eguna ospatzeko urriaren 2an ermitan meza ospatuko da. Ondoren, Udalak pastak eta mosketa eskainiko ditu.

#### IKA Euskaltegian ikasturte berria

2016-17ko ikasturtean izena emateko irailaren 30ean akituko da. Interesatuak 948 451555 telefonora deitzen ahal dute edo bertatik pasatu.

GIZARTEA → AZAROARI BEGIRA

## San Martin bestak antolatzen hasiak dira Aurtitzen

Egunak zehaztu dituzte gaurgero eta azaroaren 10etik 13ra izanen dira

### Arkaitz MINDEGIA

Udako besten bukaera izaten da Aurtizko San Martin jaietan. Gazteak burubelarri bilertan dabilta bestak antolatzen eta egunak zehaztuak dituzte gaurgero: azaroaren 10tik 13ra izanen dira eta gisa gu-

zietako ekitaldiekin egitarau bete osatuko dute. Beraz, joan zaitezte zuen agendan data hauek apuntatzen.

### Kenpo kai ikastaroa

Azken lau urteetan Kenpo kai ikastaroa ematen dabilta Iturengo herriko etxeko ganbaran. Herriko eta inguruko herrietako haurrak Modesto irakaslearekin Kenpo kairen munduan sartzen dabilta, gero han eta hemengo topaketa eta txapelketetan



ALBAOLA .com  
photo: MENDI

ARGAZKIA: WWW.ALBAOLA.COM

### Joaldunek ere ongietorria egin diote Gurdibideari Albaolan

Iturengo joaldunak bertze urte batez Zarauzko euskal jaietan ibili dira beraien joare soinua kostaldeko herri horretako bazter guzietan zabalduz, goizean goiz hasita. Bertzalde Albaola Itsas kultur Faktoriak Burgosetik Pasaiara egin duten gurdi bidearen bukaerako jaietan parte hartu zuten Iturengo Joaldunek. Burgosen hasi eta Araba, Nafarroa eta Gipuzkoan barna igaro ondotik, gurdiek Pasaiako Albaolan izan zuten helmuga. Egitarau handia izan zuten eta bertan joare soinuak aditu ziren. Azkenik, aurreko alean Joaldunen eguneko egitaraua ematerakoan akats dexentea izan genuen, data nahasi baigenuen. Irailaren 24an zela jarri beharrean 17an jarri genuen. Barkatu eragozpenak.

parte hartuz. Asteazketan ematen dute ikastaroa, arratsaldeko 4etatik 6ak bitarte.

Animatzen den, guztia bertara hurbiltzen ahal da.

### Mendaur trikipandero eskola ateraldietan

Kurtoa hasi baino lehen Mendaur trikipandero eskolako ikasleak

han-hemen ibiliko dira beraien triki, pandero eta abestiekin bazterrak alaitzen. Urriaren 1an Sunbillan izanen dira eta urriaren 8an Zubietako euskararen egunean.

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

**Edredoi nordikoetan espezialistak**

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

# ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 7 ETA 8AN

## Euskararen Eguna ekitaldiz gainezka prestatu dute gazteek

Bezperan ere zenbait ekitaldi izanen dira

### Fermin ETXEKOLONEA

Herriko gazteen antolatutako Euskararen Egunak hainbat ekitaldi izanen ditu aurten. Urriaren 8a izanen da egun haundia, baina bezperatik ere bada non josta.

Urriaren 7an, ortziral arratsalde eta ilunabarrean triki-poteoa izanen da, baita pintxo lehiaketa eta argazki lehiaketa ere. Afalondonan, 22:00etan mus txapelketa jokatuko dute Herriko Ostatuan eta Errandonean kontzertua izanen da, Azken Trena taldearekin.

Urriaren 8an, larunbat goiz guztian zehar zonaldeko artisauek beraien lanen erakusketa egingen dute. 10:00 aldera trikitixarekin herrian buelta emanen dute. Gero joaldunak aterako dira. Eguerdian herri kirolak eta ondotik Muxikoak.

Goiz guztian zehar



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

### Motozaleen bilgune izan da Malerreka

Estatu mailako Kawasaki Vulcan elkarteetako kideek Zubieta bisitatu zuten irailaren 10ean eta estalpean bazkaldu zuten 115 lagunek. Hiru eguneko elkarretaratzea antolatu zuten eta Elgorriagako bainuetxean hartua zuten ostatu. Herriarrek moto ikusgarriak ikusi zituzten Zubietako plazan eta batzuk probatzeko aukera ere izan zuten. Extremadura, Tarragona, Katalunia, Gipuzkoa, Nafarroa... estatuko toki guztietatik etorritako motozaleak izan ziren eta Zubietako lau joaldunek ongi etorria ere egin zieten. Ikusmin handia sortu zuten joaldunek motozaleen artean eta txalo artean agurtu zituzten.

gazta eta magraren apostua egiteko aukera izanen da eta beti bezala, pisura gehien hurbiltzen denak etxeratuko ditu.

14:30 aldera herri bazkaria izanen da Alaia

Martin eta Miren Amuriza bertsolariekin. Herrian bueta bat ere emanen dute bazkalondonan. 19:00etan haurren euskaraokea izanen da.

20:00etan dantzaldia Oharkabe taldearekin.

21:30ean xingar jatea izanen dute afaltzeko. 23:00etan Kontzertuak: La jodedera taldea eta Niarawa batukada. Ondotik, Euskararen Eguna akitzeko, dantzaldia Oharkaberekin.



ARGAZKIAK: ERNESTO DOMINGUEZ

### Irotzabalgo bidea moldatu eta berritu du Udalak

Irotzabalgo bidea moldatu du Udalak. Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza aprobetxatuz, bide aldapatsua zaharberritu dute. Bi bihurgunetan porlana bota eta maldarik handienak egokitu dituzte.

### ZERBITZUAK

TTIPI-TTAPAren Telefono Gida ERRAN.EUS webgunean erabilgarri

Urteak daramazki TTIPI-TTAPAK bere Telefono Gida argitaratzen. Alde batetik, gure lurraldeko partikularren telefono zenbakiak ageri dira herriz herri eta bertetik, profesionalak, komertzioak, lan-tegi eta zerbitzuak biltzen ditu Gida komertzialak. ERRAN.EUS webgunearen bidez, telefono horiek denak norbere ordenagailuan edo sakeleko telefonotan kontsultatzeko aukera ere bada orain. Eta kontsulta telefonoaren bitartez eginez gero, zenbakiaren gainean klikatuta, deitu ere egin ahalko da.

### ZERBITZUAK AZPIATALEAN

Webgunearen atari nagusian, *Zerbitzuak* azpiatalaren barnean klikatu eta Telefono Gida, nahiz Gida Komertzialean sartzeko aukera bada. Telefono Gidan, bila zabiltzan pertsona horren abizena edo herria edo biak sartuta, baduzu telefono hori zein den jakiteko aukera.

Hor ageri diren datu pertsonalak publikoarentzat irekita dauden iturrietatik hartuak izan dira. Datutegi honetan telefono berri bat sartu, edota gaizki dagoena zuzendu edo ezerezteko eskubidea erabiltzeko, [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus) posta helbidera bidali behar da mezu bat, zehaztuz erabili nahi den eskubidea.

KULTURA → IRAILAREN 24 ETA 25EAN ETA IRAILAREN 29TIK URRIAREN 2RA

# Hegaztien jardunaldiak Bertizera ailegatuko dira asteburuan



## TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoa Turismo Elkargoak, Navarra al Natural erakundeak eta Urdazubiko Udalak, Nafarroako Gobernuko Ingurugiro Departamentuaren eta Turismo Saila-Birding Navarraren eta Orgiko Natur Gunearen laguntzaz antolatutako Nafarroako hegaztien VII. Jardunaldiak bi asteburutan eta zenbait natur eremutan hedatzen ari dira aurtten. Joan den asteburuan, Belate inguruan eta Urdazubin egin dituzte ekitaldiak.

Irailaren 29 eta 30ean Iruñean egingen diren solasaldien ondotik, urriaren 1ean, larunbat goizeko 10:30ean Orgiko hariztian barna ibilaldia proposatu dute. Arratsaldean Bertizko jaurregian izanen dira ekitaldiak. 18:00etan natur eremuen inguruko solasaldia eskainiko du Maria Jose Aguilarrak. 19:00etan Joaquín Araujok *Lecciones de los nómadas del viento* solasaldia eskainiko du.

Urriaren 2an, igande goizeko 10:30ean Bertizko jaurerriko basoan 6 kilometroko ibilaldia egingen dute Antonio Pestana eta Juan Goñirekin, Turismo Bulegotik abiatuta. 11:30ean, ibilaldia lorategi historiko-artistikoa barna egingen dute. 18:00etan, *Hegaztien izenak herri kulturalan* solasaldia eskainiko du Antonio Pestanak Jauregian.



Multi-lasaitasun aseguratua

## Batasunak indarra dakar



Elkartu zure Aseguruak eta eskuratu *opari gisa 700€-ra bitarte*

Etxea   Autoak   Istripuak   Bizia   Hortzak   Osasuna   Merkataritza   Ezintasuna   Heriotzak



Eramazu Visa Opari Txartel hau azaroaren 30era arte



Sustapenak 2016ko irailaren 1etik azaroaren 30era arte baliatu da. Kontsultatu sustapenaren baldintzak sustapenaren oinarrietan, Rural Kutxako zure bulegoan baliatuz eskura.

## EZKURRA

GERTAERA → IRAILEAN

# Santa Kruz ermitako teilatuaren zati bat erori da

Aldarean kalte handiak eragin ditu erorketak

**Fernando ETXEBERRIA**

Duela egun batzuk, herriaren irteeran dagoen Santa Kruz ermitako teilatuaren zati bat erori zen. Kalte nabarmenak eragin ditu aldarean, bi zutoin eta igeltsu dezente erori zelako teilatutik.

**NORK KONPONDU BEHAR DU?**

Ermita lehen bezain dotore egon dadin, beharrezkoa izanen da eroritako zatiak kendu eta teilatua eta aldarea konpontzea. Horretarako, nola eta nork kon-

pondu behar duen erabaki beharko da lehenbizi eta garrantzia izanen du ermitaren ardurara nork duen jakiteak. Hainjustu, TTIPI TTAPAREN ekaineko aldizkarian aritu ginen gaiaren inguruan solasean. Kontua da zenbait agiritan irakur litekeela, ermita Udalak eta herritarrek eraiki zutela. Gaur egun, badirurdi, udalaren izenean dagoela eraikina baina horrek ez du erran nahi bere jabetzakoa denik. Horregatik, komeniko litzateke konponketa lanak hasi aitzinetik, jabetza-erregistrora joan eta eskriturak noren izenean dauden argitzea.



**Ba al zenekien**

**Barranka ostatua irailaren 26tik urriaren 7ra arte itxita egonen dela. Ongi irabazitako oporrak hartuko dituzte!**



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Teilatua erori aitzineko eta ondorengo argazkiak. Kalteak nabarmenak dira.

 GRUPO TANATORIO TALDEA  
**IRACHE**  
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA  
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)  
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)  
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA  
ETA IRUNGO OSPITALETIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

 SUKALDEKO ALTZARIAK  
ARMAIRU ENPOTRATUAK  
KOLTZOIAK - ETXETRESNAK

Erakusketa  
Bereau etxean

**BORTZIRI**  
UNSION ANIAK

Erakusketa: Bereau Etxea LESAKA Nafarroa  
T. 948637266 M. 607226891  
bortzirialtzari@telefonica.net

 ORBELA  
SENDERISMA ALBERGUESNA  
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia - Mikel  
Tel. 948 450 014  
BEINTZA-LABAIEN  
orbela@alberguesnavarra.com  
www.orbela-beintza.com

 LABE ZAR

Tel: 948 631 076 · BERA

# UDAZKEN NEGUKO MODA

Hostoak dantzan hasi orduko, gure soinean ere nabari da aldaketa. UDAZKENA IRITSI DA!

Eta hamaika proposamen bildu ditugu, hego haize, euri edo elurte, apain-apain ibil zaitezten.



## HAURRAK **Eroso bezain dotore!**

Udazkena, etxeko ttikiaren armairuari astinaldi bat emateko garaia izaten da; ttiki geratu zaizkien jantziak atera eta berriei tokia egitekoa. Eroso bezain dotore ibili eta une bakoitzaz goza dezaten, kolorea eta bizia darien proposamenak egin dituzte diseinatzaileek.

Udazken eta negua ez dira kolore ezaren sinonimo: estanpatu koloretsuak, eskuz egindako irudiak... ageri dira jertse, jaka eta soinekoetan. Mutiko zein neskatoentzat *Jogging* edo kirolerako

galtzak, *Bomber* jakak eta kirol oinetako erosoak aurkeztu dituzte, baita petoak ere. Horrez gain, minigonak, galtza motzak eta soinekoak eta ator eta marinel itxurako jertseak ere ez dira faltako.



Serapio Mugika, 15 | IRUN | 943 618 033  
[www.mirentxu.net](http://www.mirentxu.net)

# mirentxu

0-16 neurriko umeen arropak  
8-16 urteko neska mutikoetan berezituak  
Bertan eskuz egindako soinekoak  
Bodyak, barruko arropa, leotardoak,  
galtzerdiak, seaskak, oinetakoak

IDO · Tiffosi · Name It · Y-Clu  
XTI · Juliana · Nike · Losan



Haurrek arropa erosoa eramatea ezinbertzekoa da. Egunerokotasunean laisterka, salto, dantza... askatasunez egin dezaten. Honek ez du erran nahi konbinaketak eta estiloa kontuan hartuko ez direnik.



**ARROPA KONFEKZIOAK**  
**MARI CARMEN**

Brullio Iriarte 22 (Txokoto) ELIZONDO - T 948 580 883

# HAURRAK



## Temperaturak beheiti...

Baina gorputza bero. Halaxe, izanen dute **lumazko beroki eta txaleko** goxoei esker. Koloretako galtza edo leggings estanpatuekin jantzita, konbinazio polita osa liteke, itxura formalagoa edo informalagoa lortuz.

Horiekin batera, **beisbol jokalariek janzten dituzten jaken itxurakoak, cardigan txanodunak eta kazadora bakeroak** erakusleihu gehienetan ageri dira.



## Eman kolorea munduari



Gorria, mostaza, berdea eta urdina dira denboraldi honetako kolore nagusiak baina beltza eta grisa ere geroz eta gehiago erabiltzen dituzte haurrentzako arropetan.

Jantzi ilunago horiei, eta baita koloretsuei ere, kolorea gehitzeko bueltan datoz leotardoak! Estanpatuak, marradunak edo diseinu bereziak dituztenak, urrutitik ikus daitezela!

**Haurrentzako arropa 0-14 urte**

# YPAPU

Petit Oh!, IDO, Seven one Seven, Pyrenex, Jake Fischer, Garcia Jeans

**Abenduan jaunartze kolekzio berriak!**

**Orain helbide berrian!**

Fermín Calbetón, 6 - Oiasso Museo parean  
 IRUN · T. 943 02 97 54  
 ypapuirun@gmail.com

**IBARROLA**

Haurrentzako arropa  
 0-14 urte  
 Parrokia kalea 6 · Doneztebe  
 948 450 463

**LARUNBAT ARRATSALDEAN IREKIA**

B-KARO Pimbalina mayofat hazi-arropa 3pommes Kiriki moda infantil tuc tuc



Pausoz-pauso, arrastoa uzteko

# OINETAKOAK

EMAKUMEZKOAK

Kirol itxurako oineta-koak izan dira jaun eta jabe pasa den denboraldian eta udazken eta neguan ere ez ditugu erantziko. Horiekin batera, **lauki itxurako takoi lodia duten zapatak, lokarridun botak** eta **balleteko dantzarien itxurako bailari-nak** egonen dira modan.



## GIZONEZKOAK

Erosotasunak eta do-toreziak bat egin deza-ketenaren erakusle di-ra gizonezkoentzako bildu ditugun proposa-menak: **lokarridun botak, Chelsea botinak, larruzko zapatak, ki-rol zapatilak edota mokasinak**. Bada non aukeratua!



Larunbat arratsaldetan irekia  
FAMILIA UGARIENAKO %10eko deskontua

Santiago,32 · ELIZONDO · 948 580 209  
www.calzadosvirgilio.com




*Mari Cruz*  
LENTZERIA  
BOUTIQUE  
DONEZTEBE · 948 450 112



Eroso egoteko,  
norbere buruarekin  
gustura sentitzeko edo  
norbait erakartzeko...


# LENTZERIA



Bularretako, kulero, lotarako jantzi edo galtzerdiak... bere ttikian, garrantzitsuak dira. Eroso egoteko, norbere buruarekin gustura sentitzeko, norbait erakartzeko... jantzen ditugu, uena-ren arabera bata edo bertzea aukeratuz.

Ehunka dira merkatuan aurki litezkeen diseinuak, kolore, forma eta ehunak. Datozen hilabeteetarako proposamenen artean loreen brodatuak dituztenak, zuri-beltzak, grisak, moreak, kolore pastelak eta *animal print*-a nagusitzen dira.


Ba al zenekien emakumeen %60 baino gehi-gok bularretako neurri desegokia erabiltzen duela? Denda espezializatuetera joanda dago-kizun neurria zein den erakutsiko dizute.



NEURRI HAUNDIETAN ESPEZIALISTAK

ELISA CAVALETTI BEAUMONT NICKELSON  
ITALIA AMSTERDAM ESTABLISHED 1954

PRIMA DONNA ANDRES SARDA Aubade



# ZATOZ VENTA PEIORA MODA EZAGUTZERA

3 POMMES BENZI BELLOSTA MORLANS BMSAK CALVIN KLEIN CONVERSE DELSEY DENIM & SUPPLY DESIRES DESIGUAL DOCKERS EA7 ARMANI EASTPAK  
 ESPRIT G-STAR HACKETT HELLY HANSEN HILFIGER DENIM I.CODE IKKS JACKS&JONES KAPORAL KOCCA LACOSTE LACOSTE LIVE LEE LEGOWEAR  
 LEVIS LITTLE MARCEL LOLLIPOPS MANGO NAPAPIURI NORTON ONLY ONLY PLAY ORCHESTRA OXBOW PEPE JEANS PETIT BATEAU PROMISE  
 RALPH LAUREN RELISH RIP CURL SAMSONITE SELECTED SOLID SUPERDRY THE NORTH FACE TOMMY HILFIGER TRANGOWORLD TRESPASS  
 VANS VERO MODA VIOLETA WRANGLER



**PEIO**  
mode

WWW.VENTA-PEIO.COM

Tel : +34 902 210 800 (es) | 0820 562 267 (fr)

Arnegui | Dantxarinea | Behobia | Landibar | Agus Benta | Ibardin





## Nahasi eta bete-betean asmatu!

Udazkeneko lehenbiziko hilabeteetan, denboraldi arteko dantzan ibili ohi gara; udako jantzi arinak, jaka, jertse eta galtza luzeekin konbinatuz. Eta aurtengoan, are gehiago! Diseinatzaileek ere konbinaketa horixe proposatzen dute eta. Tulezko ator bat, galtza bakeroekin jantzea; soineko arinak jertse lodiekin konbinatzea; eskote gurutzatua duten algodoizko soinekoak neguko oinetakoekin jantzea...


# EMAKUMEAK

Urte sasoi honetan naturak hartzen dituen koloreak izan dira diseinatzaileen inspirazio iturri.

Lainotutako zeru grisa, ardo gorri kolorea, itsasoko ur arreena, eroritako hostoena, lur bustiarena...

Horretaz gain, 60. eta 70. hamarkadak gogoran, laranja, larrosa eta mostaza kolorea ere behin eta berriz ikusiko ditugu, baita urdin iluna, urre kolorea eta zilarra ere.

## Kolore, kolore...



## Eskuratu zurea...

### 1. Bandolera.

Denboraldi honetako ezinbertzeko osagarria da: larruzkoa edo antezkoa, kolore mate edo dizdiratsuak dituena.

### 2. XXL belarritakoak.

Luze eta finak, ia-ia sorbaldaraino iristen direnak. Eta nork erran zuen bikoteka jantzi behar direla? Bakarra jartze-  
ra ausart zaitez!

### 3. Midi gona.

50. hamarkadara bueltatuz, tulezkoak dira punta-puntan daudenak. Gona zerekin konbinatu, hor dago gakoa.

### 4. Bomber jaka.

Forma eta kolore aunitzekoak daude; informalak, dotoreak... norberaren estilora egokitzen dena!

### 5. Belusezko jantzia.

Ehun dotore hau denboraldiko izarretako bat izanen da: galtza, soinekoak, jakak.... deneratik aurkituko duzue.






# Beola Etxea

VENTA

Ibardin gaina, 30 BERA • T. 948 630 709 • [www.beolaetxea.com](http://www.beolaetxea.com)



## Udazken eta neguko MODA BERRIA

LURRINDEGIAN sekulako eskaintzak!





## Hariak lotuz, txirikordak sortu...

Artilezkoak, puntuzkoak, lodi edo fina-goak... jertseak dira gizonetzkoek udazken eta negu honetan gehien soinean gehien eramanen duten jantzietako bat.

Eta diseinuari dagokionez, zenbat eta txirikorda gehiago izan, orduan eta hobe! Estantpatuen tokia txirikordek hartuko omen dute...

# GIZONAK

Inguruan hainbertze **Bomber jaka** ikusita, gizonetzkoek ere eurena nahiko dute eta aukerarik ez zaie faltako: tartean, poliester, nylon, algodoi edo puntuzkoak. Horrez gain, **jaka bakeroak, larruzkoak eta gabardinak** ere erakusleihatetan ageri dira.

**Laukidun atorrak** izanen dira modako bertze jantzia; galtza bakeroekin primeran gerlitzzen dira. Eta galtzei dagokienez, galtza estuak edo kirol itxurakoak nagusituko dira.

## Berde berdea

Udazkeneko koloreen artean, zalantzarik gabe, berdea nagusitu da aurtengoan. Berde militarrekin batera, garrantzia hartu du **oliba-berde** koloreak. Galtzek, atorrek, jakiek eta berokiek... tonu berde berezi hau izanen dute.



**JUAN J. PIKABEA**  
SENARGAIENTZAKO TRAJEA  
15 egunez  
ZURE NEURRIRA

Neurri handiak  
Galtzak eta bakeroak 70 arte  
Atorrak 56 arte  
Jertseak  
NEURRIRA EGINDAKO GALTZAK


Pina Cavalin DIESEL LOTUS Pionier

Amezitia z/g • DONEZTEBE  
Tel. 948 451 670

*Belzunequi* DESDE 1901

Emakume eta gizonetzkoen moda · Etxeko arropa

Jaime Urrutia 44 • ELIZONDO • Tel.: 948 580 056



**M**  
MERCHE MODA NOVIOS

RAMON SANJURIO  
ROY ROBSON  
FUENTECAPALA

Serapio Múgica, 11  
20302 IRUN  
943 612 626

[www.capelettimercheirun.com](http://www.capelettimercheirun.com)



Aixturrak lanean paratu eta orrazkera berriak probatzeko garaia izaten da udazkena. Ilea luze daramaten anitzek mozteko probesten dute eta motz daramatenek, berriz, orrazkerari ukitu berezi bat gehitzeko.

# ILEAPAINDEGIAK

## Emakumezkoak

**Bob orrazkera** izan da 2016an nagusitu den orrazkeretako bat eta hala segiko duela dirudi. Luzeago edo motzago; lisoa edo ondulatua... bezero bakoitzaren estilora egokitu liteke. **Ile kizkurra** ere moda modan dago, bolumena muturreraino emanaz. Eta ile motza ere ezin aipatu gabe utzi **goiko aldean ilea luzeago** utziz.

## Gizonezkoak

**Ile motz motzak** irabazi du ile luzearen aurkako borroka; gainera, alboetan goiko aldean baino gehiago moztea da proposamena. Ilea lisoa edo kizkurra izan, primeran gelditzen da.

# ESTETIKA

Makillajeaz solasten hasitakoan, naturaltasuna da behin eta berriz erreplikatzeko kontzeptua. Horrek, ordea, ez du erran nahi makillajerik erabili behar ez dugunik, dagokion tokian jartzea baizik; ezkutatu nahi dena es-taliz eta nabarmendu nahi dena agerian utziz. Hori lortzeko, denboraldi honetan lur koloreko tonuak proposatzen dituzte eta ezpainak gorri ilun, marroi eta arrosez margotuz.



GIZARTEA → UDALAREN ESKUTIK

# Biodantza eta dekorazio margogintza ikastaroak antolatu dituzte aurten

Irailaren 29an bukatuko da izen emateko epea

## TTIPI-TTAPA

2016-17 ikasturterako Goizuetako Udalak eskaintzen dituen ikastaroetan izen emateko epea ireki da irailaren 29ra bitarte. Aurten biodantza (urritik ekainera) eta dekorazio margogintza (urritik apirilera) eskainiko dira.

Biodantzaren kasuan, helduentzan (astean 2 orduko saio bat), eta 3-7 urteko haurrentzat eta 8-11 urteko haurrentzat (astean ordu beteko saioa) eskainiko dira. Gutxieneko ikasle kopuruarekin (8 pertsona), ikastaroaren prezioa 283,50 eurokoa izanen da helduentzat eta 141,75 eurokoa haurrentzat.

Dekorazio margogintza ikastaroan aste-



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

## Iskibiko 9. Euskal Jaiak itxi du kanpinaren denboraldia

Irailaren 18an ospatu zen Iskibiko euskal jaiaren bederatzigarren edizioa. Eguerdian Umore Ona Abesbatzak emanaldia eskaini zuen. Herriko dantzariak Aurrekua ere dantzatu zieten arduradunei. Talo jatea egin zen herriko talogileen eskutik eta trikitalari eta panderojoleak aritu ziren. Arratsaldean toka txapelketa jokatu zen eta Ixiar Bakero eta Xabier Etxegia suertatu ziren txapelkun.

an bi ordu eta erdiko saioa eginen dute, ostiralean 16:30etik 19:30era. Gutxieneko ikasle kopuruarekin (8 pertsona) ikastaroaren prezioa 250 eurokoa izanen da. Teknika ezberdinak lantzeko aukera izanen da ikastaroan: altzariak berritu, margotu, apaindu eta itxura aldatu; olioizko margoekin koadroak margotu; egurrezko kaxak, markoak... apaindu; beirazko botilak, marmitak, oihala... apaindu.

## Umore Ona Abesbatza lanean

Oporraldia pasa ondoren Umore Ona Abesbatza entsaioak prestatzen hasi da. Ostiralero arratsaldeko 7:30ean bilduko dira Eskolako musika gelan. «Kantua gustuko baduzu etorri, frogatu eta disfrutatuko duzu, ez zara damutuko» diote abesbatzatik.

## BERA, GOIZUETA, LEITZA ETA LESAKAKO BONBEROEN GASTU ARRUNTAK ETA BEHARREZKO INBERTSIOAK ORDAINTZEKO

### 105.864 euroko laguntza eskualdean suhiltzaile boluntarioak dituzten Udalentzat

#### TTIPI-TTAPA

Suhiltzaile boluntarioak dituzten udalei dirulaguntza eman die Nafarroako Gobernuak, denera 191.000 euro. Eskualdeko kasuan, 105.864,64 euro jasoko dituzte suhiltzaile boluntarioen parkeak dituzten lau herriek: Berako Udalak 21.765,87 euroko dirulaguntza jasoko du, Goizuetako Udalak 34.914,69 eurokoa, Leitzaokoak 24.287,24 eurokoa eta Lesakakoak 24.896 eurokoa.

Berari 7.605,87 euro gastu arruntengatik emanen zaizkio (suhiltzaileen eta ibilgailuen istripu aseguruak, gastu arruntak eta babeserako bi galtza pare eros-

tea motozerra erabiltzeko) eta 14.160 euro beharrezko inbertsioengatik (2 ate erostea eta haietan errotuluak paratzea); **Goizuetari** 20.537,22 euro gastu arruntengatik (istripu aseguruak eta bi txartel berezi eskuratzea, esku hartzeko zenbait material erostea eta gastu arruntak) eta 14.377,47 euro beharrezko eta ofiziozko inbertsioengatik (Gobernuak utzitako ambulanziarako ezinbesteko ekipamendua, basorako txalekoak eta kaskoak erostea eta 3 talki erostea); **Leitzari** 17.350,22 euro gastu arruntengatik (istripu aseguruak, 3 txartel berezia eskuratzea, baita lanerako ekipamendua ere –galtzak, bo-

tak, eskularruak... eta gastu arruntak), 6.937,02 euro beharrezko eta ofiziozko inbertsioengatik (moto ponpa eramangarria erostea eta 3 talki erostea) eta **Lesakari**, 19.211,84 euro gastu arruntengatik (istripua aseguruak eta 18 moldatzaile kaskoko kopeta-argietarako, 2 txartel berezi eskuratzea, ekipamendua eta suteen kontrako biltontzia tokiz aldatzeko gastua eta gastu arruntak) eta 5.685 euro beharrezko inbertsioengatik (norbera babesteko ekipo bat –kaskoa, jantzia eta botak– erostea boluntario berriarentzat, 14 linterna erostea eta 4 talki erostea).

## LEITZA

OSPAKIZUNA → X. EDIZIOA

# Aurrera eguna urriaren 1ean ospatuko dute

Udaletxeko karrapean eginen dute bazkaria

JM BARRIOLA

Urriko lehenbiziko larunbatean ospatuko dute Aurrera Elkartean eguna. 10. edizioa da aurtengoa eta goizetik gauera arte luzatuko da pesta. 09:00etan txistulariek diana joko dute eta ordu berean plazatik abiatuko dira Mendibil BTT taldekoak, Leitza-

barna irteera egiteko. Haurrentzako rokodromoa eta zaldi ibilaldiak ere antolatu dituzte plazan 11:00etik 13:00etara. 12:00etan Aurrerako dantzarien emanaldia izanen da eta segidan, Incansables txarangak alaituko ditu herriko bazterrak. 14:30ean Udaletxe azpiko karrapean bazkideen bazkaria izanen da eta ondoren ingurutxo dantzatuko dute. 21:30 aldera luntxa eta ondoren Joxe Mendizabalen eskutik dantzaldia izanen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Harrera beroa egin zaio Gurdi bidea ekimenari

Irailaren 14an eguerdi partean ailegatu zen Gurdi Bidea ekimeneko segizioa Leitzaiko dermiora. Uitziko Tunel handia zeharkatu ondoren iritsi ziren herrira, Plazaolako ibilbidetik barna. Kitaranbueltan herritar ugari egin zioten harrera beroa taldeari eta ondoren txistulari, trikitilari eta abereekin herriko plazara joan ziren. Al-baola itsas faktoria Pasaian eraikitzen ari den San Juan itsasontziarentzat alkitrana garraiatzen ari dira. Lau behi eta idi pareak tiratutako lau gurdirekin ari dira osatzen Burgos eta Pasaia arteko bidea. Herriko ikastetxeetako gazteek garai batean ohikoak ziren garraio moduak ezagutzeko aukera bikaina izan zuten eta adinekoek garai bateko oroitzenak berpizteko. Hurrengo egunean goizeko zazpitan abiatu ziren Andoain aldera, Plazaolako bidetik.



ARGAZKIA: E. IRAOLA

## Komertzianteen azoka arrakastatsua

Irailaren 10ean V. Stock azoka antolatu zuen Kxkbel-tza Leitzaiko komertzianteen elkarteak. Guztira sei komertziok eraman zituzten salgaiak plazara: Kullunka, Edergunea, Kapritxo, Leitza Kirolak, Biok eta Garbik. Balorazio oso ona egin dute antolatzaileek, jende ugari ibili zen azokan, goizean arratsaldean baino gehiago. 20 eurotik gorako erosketak egin zituzten artean urdaiazpiko bat zozketatu zuten eta Sagrario Sukunza suertatu zen irabazle.



ARGAZKIAK: E. IRAOLA

## European baina talo goxoen usainean...

Eguraldiak askorik lagundu ez bazuen ere, Talo Egunak herrikoak eta kanpotik etorritako bisitariak erakarri zituen plaza ingurura. Urtetako ohiturari eutsiz, Saralegitarrak eta Villabonatarak aritu ziren taloak prestatzen goiz eta arratsaldean. Talo lehiaketa ere egin zen eta Arantza Jauregi izan zen irabazlea. Plazara inguratzen 20tik gora artisauak postuak jarri zituzten eta baserriko animalia batzuk ere plazaratu zituzten. Eguardian herri kirol saioan harriak jaso zituzten Inhar Urruzolok eta ondoren Jon Rekondo herritarrak Etxeberria, Alkizalate eta Mindegirekin neurtu zituzten indarrak. Rekondo irabazle izan zen banaka eta bikoteka ere Alkizalate eta Rekondo gailendu ziren.



HITZORDUA → ARANZADI ETA BURDINA TALDEKOEK

## Ulizarko lanei buruzko hitzaldia eskainiko dute irailaren 30ean

Erimita inguruko lanekin segitzeko auzolana deitu dute urriaren 1erako

**Juana Mari SAIZAR**

Herriko historia eta ondareari buruz gehiago ikasteko aukera izango da irailaren 30ean eta urriaren 1ean.

Irailaren 30ean, ostiralean, Aranzadi Elkarteko Alfredo Moraza arkeologoak eta Burdina Taldeko Joxe Ramon Berrondo historialariak eta Manu Izagirre arkeologoak, Ulizarren azken urteetan egindako lanen inguruan hitzaldia eskainiko dute. Uda-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Udaberrian Ulizarko gainean aritu ziren lanean Burdina taldekoak eta berriro ere lanei ekin nahi diete.

letxean izango da 19:30ean. Ez da ahaztu behar tartean, Brontze Aroko pitxer bat aurkitu dutela eta Santa Kruz ermitaren inguruan ere lanean aritu direla. Orain, Santa Kruz ermita inguruko lanei heldu na-

hi diete berriro eta lagin batzuk hartzeko asmoa dute. Parte hartzeko aukera emateko, urriaren 1ean, auzolana deitu dute 08:15ean herrian edo Ulizarren 08:30ean. Aitzurrak eta palak eramatea komeni da.

### FLASH

#### Kinto bazkaria urriaren 1ean

Pake Toki elkartean bilduko dira herriko bost kinto, 1959 eta 1964 artean jaiotakoak.

#### Zunba Ikastaroa

Herriko gaztetxoek Kirol Mankomunitatean egin dute eskaera eta taldea osatu eta irakaslea topatzen bada, Zunba klaseak herrian hartzeko aukera izango da.

#### Mendi Martxako dirua zertan erabili?

Horixe da herritarrei egin zaiengaldera. Bilera egitekoa zuten eta datoren aldizkarian aipatuko dizuegu erabakia.

### MUGIKORTASUNA

Ederbidea proiektua abian jarri dute

Irailaren 7an, egin zuten bizikleta gaineko garraio iraunkorreko proiektua abian jartzeko ekitaldia. Mugaz gaindiko lankidetzarako ekimena da bizikletaren erabilera sustatzeko eguneroko eta turismoko joan-etorrietan. Hala, Iruña, Donostia eta Baiona bizikletaz batzeko aukera emango da 240 kmko ibilbide batean. 90 km berri eraikiko dira: 46 bizikletetarako bideetatik edo bide berdeetatik eta 44 motordun ibilgailuekin partekatutako bideetatik. Nafarroan, Ederbideak bizitan jardungo du: Bidasoa eta Plazaolako bide berdeen lotunean eta Plazaolako bideak Iruñearekin bat egiten duen tokian.

KIROLA → IRAILAREN 11N

## 425 parte-hartzaile bildu zituen Plazaolako maratoi eta maratoi erdiak

Mikel Rodriguez eta Eva Esnaola nagusitu ziren maratoiari

**JM BARRIOLA**

Plazaola Natur Bidearen lehenengo Maratoia eta Plazaolako X. Maratoi Erdia egin ziren irailaren 11n. Nafarroa eta Gipuzkoa lotuaz Plazaola natur bidean barna

egin zuten lasterka parte hartzaileek. Bi distantzia ziztuzten aukeran; Leiztatik atera zen maratoi erdia 26 kilometrokoa eta Lekunberritik atera zen maratoi, 42 kilometrokoa. Biek Andoainen izan zuten helmuga.

#### MARATOI ERDIA

Denera, 425 lasterketarik parte hartu zuten. 26 kilometroko distantzian, Raul Ama-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Ezkerrean, Plazaolako Maratoi emakumezkoen eta gizonezkoen podiumak, elkarrekin. Eskuinean, Mikel Rodriguez lehenbizikoa izan zen helmugan.

traienek (01:29:41) irabazi zuen, Ibai Alba izan zen bigarrena (01:29:49) eta hirugarrena Joseba Jauregi (01:30:22).

Emakumeetan, Uxue Tena izan zen lehen helmugan (01:54:16), bigarrena Arantxa Perez iritsi zen (01:55:16) eta hirugarren postuan

Ana Gonzalez (1:58:06).

#### MARATOIA

42 kilometroko distantzian, Mikel Rodriguez izan zen lehena helmugan 02:27:04ko errekor denboran iritsi zen. Koldo Agirre bigarren izan zen (02:39:04) eta Hugo Figueras hirugarren

(02:39:18). Bixente Igarzabal lesakarra laugarren izan zen.

Nesketan, Eva Esnaola lehenbizikoa kilometrotik buruan jarri zen eta garaipena lortu zuen (03:09:25). Honen jarraian, Sonia Bassas (03:25:20) eta Ainara Murua (03:25:34) iritsi ziren.



# BAZTAN

GIZARTEA → INOIZ BAINO BISITARI GEHIAGO IZAN DIRA UDA HONETAN

## 2013 urte osoan baino turista gehiago izan dira herrian abuztuan bakarrik

15.000 bisitari baino gehiago izan ditu Baztango Turismo Bulegoak udan

### TTIPI-TTAPA

Baztango Udala aurreko legealdian hasi zen urtez urteko turismo bulegoko datuak modu sistematikoan jasotzen, eta turistek eskatzen duten informazio mota hobeto sailkatzen. Horri esker, azken 5 urteetan Purioeseneko bulegotik pasatu direnen profilak eta interesak jasokak dituzte, konparaketa eta analisirako aukera emanez. Udako denboraldia akitzen ari denean, aurten Elizondoko Turismo Bulegora hurbildutako bisitarien datu eta ezaugarri nagusiak aurkeztu dituzte.

### UZTAILEAN EUSKAL HERRIKOAK, ABUZTUAN KATALUNIA ETA VALENTZIARREK GEHIEN

Uztailean 4.496 pertsona hurbildu ziren turismo bulegora informazio eske; iaz baino %29,08 eta duela 5 urte hurbildu zirenak bider 3,75. Igoera nabarmena izan da. Jatorri dagokionez, aurreko urteetako argazki berdintsua da: %27 Euskal Herrikoa izan da, %16,73 Kataluniakoa, %10,27 Herralde Valentziarretakoa; %7,85 Andaluziakoa eta %5,11 Aragoikoa, %6,04 atzerrikoa izanik (horietari-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Baztango Trilogiak eragin nabarmena izan du turismoan, udaberrian filma estreinatzerakoan areagotu daitekeena. Argazkian, pelikularako kastinga egiteko esperoan Arizkunenean.

ko %42 Frantziakoak). Abuztuan, berriz, Turismo Bulegoan 10.667 lagun izan ziren. Honek suposatzen du iaz baino %49,77 gehiago, eta duela 5 urte baino 4 aldiz gehiago. Harrigarriago ere, aurtengo abuztuko datua 2013. urte osoan (10.583) turismo bulegotik pasatu direnena baino handiagoa izan baita. Hilabete honetan, kataluniarrek eta valentziarrek hartu diete lehen postua euskaldunei, %25,61 eta %17,76 hurrenez hurren, Euskal Herrikoen %15,62ren aitzinean. Laugarren jatorri nabarmena Madril da, (%13,1), eta bosgarrena Andaluzia (%8,77). Atzerritarrek %4,07 izan dira (horien artean %60a frantsesa). Uztailean eta abuztuan hurbildutakoen artean, %35 inguru etorri da irakurritako/ikusitako errefe-

rentziengatik edo norbaitek gomendaturik, eta bertze hainbertze Trilogia sortutako jakinenez. Aipatu beharrena da Turismo Bulegoko bisitarien %14 inguru errepikatzailea dela, hots, Baztan lehengo ezagutu eta bueltatzea erabaki duena. Orokorrean, egonaldia egitera datozenen artean Baztangoa turismo familiarra izaten da. Modu berean, egun pasa datozen bisitari aunitz izaten dira. Egonaldiaren iraupenaren arabera, interes ezberdinak dituzte bisitariak. Hala ere, orokorrean errandaiteke Baztan bere osotasunean ezagutu nahi dutela (berezi egonaldi luzekoak). Baztanera etorri diren ia guztiek badute Xorroxinen berri, gune horren inguruan egiten hasi den lanketaren beharra are nabarmenago uzten

duena. Baztango Done Jakue Bideak gero eta interes handiagoa pizten du, GR11rekin batera.

### BAZTANGO TRILOGIAREN ERAGINA

Datu hauetan oinarriturik irakurketa sokoagoak egin badaitezke ere, Turismo Bulegoko datuek argi eta garbi agerian uzten dute:

1. 25 urteko ibilbide luzeko fruitua da Baztanek Euskal Herri mailan eta kanpoan landa turismoan lortu duen izen ona. Behin eta berriz etortzen direnak eta bailara gomendatzen dutenak (ahoz-ahoz zein aldizkari eta abarren bidez) dira gure altzornagusia. Turista hauei harrera ona egiten jarraitu behar da, gure eskaintza turistiko osoa sustatuz, kalitatea landuz. Horretarako funtsezkoa da Baztan erakargarri egiten duen izaera zain-

tzea: paisaia, herri kultura eta natura. «Honek zalantza sakonak sortu beharko litzuke Aroztegia bezalako proiektuei buruz, Valentziar erako porrot egindako urbanizazio ereduari buruz. Berezkoa dugun izaera eta urteetako lana dira urtez urte gero eta turista gehiago ekartzen dutenak eta hori zaindu behar dugu», aipatu zuen alkateak.

2. Baztango Trilogiaren eraginak jarraitzen du: zirkunstantzia arras positibo honek bi erronka jartzen dizkigu: liburuen eraginez Elizondoko bakarrik interesaturik datozenak bailarako bertze txokoak ezagutzera bideratzea eta etorkizunean bisitari hauek itzultzeko edota bailara gomendatzeko arrazoi onak ematea. Areago, heldu den udaberrian *El guardián invisible* filmaren estreinaldiak izan dezakeen eragin gehigarria aurreikusita.

3. Baztanek duen koparen estrategikoa eta alojamendu, ostalaritza eta jardueren eskaintza zabalak publiko ezberdinak asetzeko aukera ematen du. Sektore barneko elkarlana guztion ahalmenak hobetzeko aukera emanen duelakoan, lanketa hori beharrezkoa da. «Udalletik dinamizazio lan horri ekin diogu, baina zailtzarrik gabe, Baztango eragile guztien inplikazioa, bakoitzak bere mailan, beharko dugu», adierazi zuen Joseba Otondo alkateak.

**BESTAK → URRIAREN 1ETIK 3RA ANIZKO BESTAK**

## Unai lantzi koxkor biltzen 10 herritarren kontra ariko da Anizko bestetan

Igande  
arratsaldean  
izanen da  
desafioa

### TTIPI-TTAPA

Hiru egunez ospatu-  
ko dituzte Anizen anto-  
latutako Arrosarioko  
Amabirjinaren bestak.

### LARUNBATA, URRIAK 1

- 11:00etan ezkil jotzea, eta altxaferoak herriko trikitilariak alaiturik.
- 11:30ean Herri-krosa: haurrendako eta helduendako ibilbide desberdinak.
- 12:00etan Puzgarriak.
- 14:00etan Paella, eta bizkotxo lehiaketa. Lehiaketako paella eta postreekin Bazkaria.
- Ondotik Musa eta mahai jokoak.

- 15:30ean Puzgarriak.
- 17:00etan Tirolina.
- 18:00etan Txokolate jatea.
- 20:00etan Mutildantzak eta gaita.
- 21:00etan Baztan Zopak.
- 00:30ean Salaberriekin dantzaldia.
- Akitzeko Xingar jatea.

### IGANDEA, URRIAK 2

- 12:00etan Meza Nagusia.
- Ondotik Otordua: bertako produktuekin egina. Argazki erakusketara lehiaketarat aurkeztu diren argazkiez osatua.
- 17:30ean desafioa: Unai lantzi Nafarroako koxko biltzaile txapelduna 10 aniztaren aurka lehiatuko da, nork bildu 50 koxko lehenago; Unaiak berak



UTZITAKO ARGAZKIAK

Hondar eguneko zikiro jatearen ondotik, boneta jaurtiketa txapelketan eta Joxe Angel akordeoilariekin dantzan ongi pasatzeko modua izanen da.

### BERTSO MARRAZTUAK

Unai Gaztelumendi karikaturgile eta Amets Arzallus eta Unai Iturriaga bertsoan ariko dira.

bakarrik edo gainerako hamarrak batera. Herritarren arteko jokoak.

- 18:00etan bertso ma-

rraztua emanaldia.

- Ondotik Hauspolariek taldearekin dantzaldia.
- Akabailan Afaria Mendiarte Kultur elkartean.

### ASTELEHENA, URRIAK 3

- 11:00etan Mus Txapelketa.
- 12:00etan Buruhandiak herrian barna.
- 14:00etan zikiro jatea,

Joxe Angel akordeoilariek alaiturik.

- 17:00etan IV. Boneta jaurtiketa.
- 21:00etan Joxe Angel akordeoilariekin dantzaldia.
- Ondotik Xingar jatea eta suaren inguruan kantaldia.
- Bestak akitzeko Gaixoa ni eta herriari itzulia.

**Mármoles SOULE**  
HILETA ARTEA  
T. 948 453 444 | M. 688 605 182  
ARIZKUN

**CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE**  
abokatuak  
Santiago, 59 2C - ELIZONDO  
T. 948 581 468 M. 630 354 818

**MIRENTXU GOIENETXE**  
T E R A P E U T A  
Autoestima, dolua, ansietatea,  
bikote arteko arazoak eta  
famili arteko arazoak.  
ERLATEGI PLAZA, 8 BEHEA  
ELIZONDO | T. 626 021643

TTIPI-TTAPA  
ALDIZKARIA  
SARE SOZIALETAN  
**facebook**  
www.facebook.com/ttapi.ttapa  
www.facebook.com/ttapi.eus  
EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

# BAZTAN

GIZARTEA → AZPIEGITURA LANAK

## Mendietako bideak ireki eta konpontzeko lanak hasi dira

Garbiketa lanak ere eginen dituzte mendietan

### TTIPI-TTAPA

2016ko aurrekontuetan aurreikusitako mendi-lanak abiatu berri ditu Balleko Etxeak. Excavaciones Javier Alzugarai enpresak 56.617 eurorengatik (BEZ kanpo) mendiko hainbat bide ireki eta konpontzeko dituzte eta Lanalekomek 43.334 eurorengatik (BEZ kanpo) mendi garbiketa lanak eginen.

Mendietako bideei buruz Beartzunen Gamioko bordaren gaineko aldetik, kamioien pasasaihesteko 500 metroko bidea irekiko da. Aritzakunen Zotaleta inguruan pinuak eta izeiak ateratzeko bidea 1,5 km.ko bidea; Almandozen, mendi ustiaketarako 800 metroko pista eta Elbeten, Berro Maldako bidea suetarako sarbidea izateko errepasatuko. Gainera Aritzakunen, Sumutsuko bordaren ondoan eta Gartzainen, Urballo alderat dagoen Gilleneko bordaren inguruan, eu-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Belate eta Erdizeko herri bazkalekuak hobetzeko sasiak moztuko dira.

riak hondatutako bideetan harri-lubeta edo eskollerak eginen dira.

Lan hauetarako hiru eskaintza aurkeztu ziren eta eskaintza hobetaren Excavaciones Javier Alzugarai enpresak egin zuen, 56.617 euro (BEZ gabe).

Bertzalde, mendiko garbiketa lanei buruz urtero bezala alanbrea biltzeko lanak eginen dira: Otsondo alderdian, Gaineko-Olan, 3 km; Lekarozko Zarbostan erretako inguruan 3,8 km;

Aritzakungo Egurtegin 4. km; Arraiozko Larratzun kilometro bat eta Otsondo zelain 2,3 km.

Modu berean, mendiko landaketetan garbiketa lanak eginen dira: Elbeteko Ameztin, Erratzuko Irrion, Azpilkuetako Bagalden eta Otsondo inguruko Mokorron.

Bertzalde, Belate eta Erdizeko bazkaleku komunalak hobetzeko sasi mozketa edo desbrozeak eginen dira. Belaten 5 hektarea eta Erdi-

zen 10. Aritzakungo Otxaskon ere, ondotik erreketak kontrolatu egin ahal izateko, han dagoen landaketan inguruz inguru hektarea bat sasi moztuko da.

Gainerakoan, Irurita-ko Errekako Almando alderdian heldu diren landare berriak babes-teko kilometro bateko iskindegia eginen da.

Lan horiek Lanalekomek eginen ditu, hiru eskaintzaren artean berea hobetaren izan baitzen 43.334 (BEZ gabe).

## ETXEBIZITZEN SUSTAPENA ALMANDOZEN



**\*10.000€-ko sukaldea barne**

### Ezaugarriak:

- 101 m<sup>2</sup>ko etxabea lursailarekin
- 1º solairua, 69 m<sup>2</sup> eta 75 m<sup>2</sup>ko etxebizitza
- 144 m<sup>2</sup>ko teilatupea
- Distribuzioa bezeroak aukeran

**\*126.000€**

**SAROB**  
ERAIKUNTZAK

info@sarobe.eus  
www.sarobe.eus  
629 687 171

mmstudio-k diseinatua  
www.mmstudio.info - 651 776 998

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 11, 12, 14 ETA 15EAN

# Pilarika bestetako egitaraua ekitaldiz gainezka dator Gartzainen

Egun handian Los Tajudos del Norte mariatxien emanaldia, tortilla patata lehiaketa eta herri afaria izanen dute

## TTIPI-TTAPA

Pilarikako bestetako egitaraua prest dute aurten ere Gartzainen. Lau egunez (asteartean hasi eta larunbatean akitu, ortzegunean atsedeen hartuta), ekitaldi ugari izanen dituzte, haur, gazte nahiz helduek ederki pasatzeko modukoak.

## ASTEARTEA, URRIAK 11 BEZPERA

- 16:00etan txupinazoa eta ezkil jotzea.
- 16:30ean mus zimizte.
- 21:30ean Baztan Zopak trinketea.
- Ondotik dantzaldia Oharkabe taldearen eskutik.
- 06:30ean zinger jatea.

## ASTEAZKENA, URRIAK 12 PILARIKA EGUNE

- 10:00etan dianak eta argi soinuak herriko musikariek.
- 12:00etan Meza Nagusia Aixteiko ermitan. Ondotik luntxa.
- 18:30ean Los Tajudos del Norte mariatxien emanaldia.
- 20:00etan tortilla patata lehiaketa.
- 21:30ean herri afaria frontoian.



ARGAZKIAK: MARIA TELLETXEAK UTZIAK

Herriko musikariek eskainiko dituzte goizetako argi soinuak. Haur eta gazteen bazkarian giro ederra izanen dute aurten ere.

## ORTZIRALA, URRIAK 14 HAUR ETA GAZTE EGUNA

- 10:00etan dianak eta argi soinuak herriko musikariek eskutik.
- 11:00etan haurren jokoak.
- 14:00etan haur eta gazteen bazkaria.
- 16:00etan haurrentzat puzgarriak eta kartak.
- 17:00etan hurbiltzen direnentzako merendua eta txokolatada.

- 18:00etan gazteen arteko futbito lehiaketa.
- Ondotik dantzaldia Salaberriren eskutik.
- 21:30ean herri afaria.
- 00:00etan gaupasa Salaberri akordeoilariarekin.

## LARUNBATA, URRIAK 15 HERRITARREN EGUNA

- 10:30ean hasita dianak eta argi soinuak izanen dira herriko mu-

- sikariek eskutik.
- 11:00etan herri kirolak.
- 14:00etan zikiro jatea.
- Ondotik mus txapelketako sari banaketa eginen dute eta segidan dantzaldia Salaberri akordeoilariarekin.
- 21:30ean luntxa. Ondotik, Dj Teklasekin gaupasa izanen da eta besten akabaila.

## FLASH

### Suinki euskaltegi berriaren inaugurazioa

Elizondoko Baztan Berri karrikaren 7.ean dagoen Suinki euskaltegi berriaren inaugurazio ekitaldia ospatu zuen AEK-k irailaren 23an.

### Bisitaldi gidatua Irunberriko Joseneara

Hazitik Hoziek antolatuta, belar aromatikoak eta infusio-belarrak hazten eta produzitzen dituen Irunberriko Josenea enpresa sozialerat bisitaldi gisatua eginen da urriaren 6an. Irteera ortzegun goizeko 8etan eginen dute Elizondoko plazatik eta bisitaldia 10etan izanen da. Itzulera, bazkaldu ondotik. Sarre 3 euro ordainduko da. Izen ematea [hazitikhozie@gmail.com](mailto:hazitikhozie@gmail.com) helbidean.

### 'Neskatoak' dokumental emanaldia eta solasaldia

Urriaren 15eko Landa eremuko emakumeen nazioarteko egunaren harira, egun horretan *Neskatoak* dokumentala eskainiko dute 19:00etan Arizkunengan, udaleko Kultura Batzordeak eta Berdintasun Batzordeak antolatuta. Ondotik, Jon Abril Olaetxea zuzendariarekin solasaldia izanen da.

# BAZTAN

GIZARTEA → ARRAIOZKO PUTXIRIA ENPRESAK EGINDEN DITU 16.776 EUROREN TRUKE

## Zahar Etxeko sukaldearen teilatua moldatzeko lanak eman ditu Udalak

Inbertsio plana egiteko lanak ere hasi ditu

### TTIPI-TTAPA

Elizondoko Francisco Joaquin Iriarte zaharretxeko sukaldearen teilatua konpontzeko lanak Arraiozko Putxiria enpresari 16.776 euroan eman dizkio Baztango udalak. Exekuzioaren hasierako aurrekontua 17.659 eurokoa zen, hortaz, aurkeztutako eskaintza ekonomikoen artean hoberena Putxiriarena izanik, udalak lana berri eman dio. Euria egiterakoan zaharretxeko sukaldeko teilatutik euria iragazten zen eta barneko aldean hezetasunak sortzen. Horregatik sukaldeko sabai edo tetxoa zartzaten eta porroskatzen ari zen.

Modu horretan, egin beharreko lana terraza moduko teilatua aldatzea izanen da. Horretarako lehendabizi geruza iragazkaitza paratuko dute eta ondotik



ARGAZKIA: ONDIKOL

### Udal hautetsiak eta mendizainak mugak aztertzen ari dira

Lapurdiko Sara, Senpere, Ainhua, Ezpeleta eta Itsasarekin eta Nafarroa Behereko Bidarrai, Baigorri, Banka, Aldude eta Urepelekin herriak dituen mugak aztertzen ari dira udal hautetsi eta mendizainak asteotan, urtero egiten duten moduan. Iparraldeko herriein muga egiten duten 50 kilometro baino gehiago ditu Baztanek.

gaintik ibiltzeko moduko zola emanen. Sukaldearen barneko sabaiak zartzatzen diren beharko dira. Lanak esleipena egin eta hilabete eta erdiz egin beharko dira.

Bertzalde, udalak zaharretxeko inbertsio plana egiteko lanak hasi ditu. Txosten horrekin zaharretxean egin beharreko lan guztien memoria bilduko litzateke: etxe barneko berritze

eta egokitzapenak, kanpoko aldeko moldaketak, irisgarritasuna, teilatua...

Txostenak lanak planifikatzeko eta dirulaguntzak eskatzeko balioko du.

### URRIAREN 9AN

Gartzainen ospatuko dute herri eskoletako besta handia

Urtero bezala, Ur-dazubi-Zugarramurdi eta Baztango herri eskoletako besta antolatu dute. Aurten, Arizkun lekukoa hartuz, Gartzainen izanen da urriaren 9an, igandearrekin. 10:30ean ongi-etorria eskainiko zaie partehartzaileei. 11:00etan ibilaldiak. Bi ibilbide izanen dira, bat laburra, haurttiendako eta bertzea luzexea-goa, haur koxkorrendako. Bazkari autogestionatua izanen da herriko pilotarlekuan, nahiz eta sutopilak ere izanen diren salgai. Arratsaldean hurrek taile-rrak izanen dituzte, baita puzgarriak ere. 16:30etik 19:30 alderarte, dantza egiteko aukera ere izanen da.

**MENDI**  
ostatua  
Santiago 25  
948 580 313  
ELIZONDO

**ARMUA** JATETXEA  
T. 948 599 131  
Zugarramurdiko errep. 3 km  
URDAZUBI

**BURKAITZEA**  
JATETXEA - ERRETEGIA  
Eguneko menua, Plater konbinatuak, Karta, Bazkariak, Sandwichak...  
Taldeentzako bazkariak  
Berezitasunak:  
Olagarroa, rodabailoa eta txuleta  
Alkerdi auzoa, Zugarramurdiko errepidea | URDAZUBI | T. 948 599 296  
restaurantburkaitzea@gmail.com

**JATETXEA-ERRETEGIA**  
**MONTXO**  
OSTATUA · TABAKO-DENDA  
Egunero irekia  
09:00etatik  
02:30era  
Dantxarineatik  
2 km.tara  
PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK  
MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK  
ESPEZIALISTAK ARRAN ETA TXULETOIAN  
ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039  
montxoblanco@gmail.com

BIDAIA → BENIDORM ETA PIRINIOETARA

## Urrian ere ez dute etxean geratzeko asmorik

laz baino jende gehiagok eman du izena antolatu diren ateraldietan

### Fernando ETXEBERRIA

Parte-hartzeari begira jarriz gero, kopuruak goiti doaz urrirako antolatu diren irteeretan. Nafarroako Pirinioetara antolatutako irteerarako adibidez, 50 bazkidek eman dute izena. Horregatik, bi txanda eginen dituzte: Baztangoak urriaren 5ean joanen dira eta Bortziriak, Malerreka eta Leitzakoak 6an.

Urriaren 1etik 14ra Benidorm aldera joanen direnak ere iaz baino gehiago izanen dira. Aurreikuspen guztiak puskatu dira; 80 bazkide

baino gehiagok eman dute eta izena. Bidaia agentziak hasieran bi hoteletan egina zuen erreserba: 24 logela hartu zituen Fenicia hotelean eta hogeiren bat Poseidon hotelean. Ezustekoaberraz, handia izan zen 66 bazkidek eman zutenean izena Fenicia hotele-rako. Bi hotel hauetan logela gehiago hartzeko modurik ez zegoela ikusita guztiak hotel bakarrean biltzeko proposamena egin zuten. Bazkide gehienek onartu egin zuten eta azkenean 80 bazkide baino gehiagok hartuko dute ostatu Fiestas Park hotelean. Aurten gertatutakoa ikusita, datorren urtean hasieratik logela gehiago erreserbatzea erabaki dute, bakoitzak nahi duen hotela aukeratzeko modua izan dezan.



UTZITAKO ARGAZKIAK

### 51 bazkidek egin dute Baltikoko hiriburuetara bidaia

Irailaren 7an, 51 bazkidek hartu zuten Loiutik Frankfurtera eraman zituen hegazkina, handik Vilniusera joateko. Zazpi egunez eta eguraldi ona lagun, Baltikoko hiru hiriburuetakoko monumentu ederrenak ikusteko aukera izan zuten.

Santa Kruzen ome-nezko festa ospatzera 122 bazkide joan ziren Lezora. 11:00etan eus-

karzako meza entzun eta 12:00etan Herri Kirolsaioa ikusi zuten. Gero Oiartzunera joan zi-

ren Gurutze Berri jatetxean bazkaldu eta dantzaldia izan zuten Jose Angelekin.



UTZITAKO ARGAZKIAK

### Elkartekoen lanak ikusgai egon dira Leitzako talo egunean

Aurten Arkupeak Elkarteko kideek egindako lanekin zenbait erakusketa egin dira urtean zehar. Irailaren 18an, iLeitzako talo egunaren baitan lan horietako batzuk ikusteko aukera izan da. Irudian ikus litekeenez, dotoreak benetan!

### GORRAITZEN

## Urriaren 20an ospatuko da bazkidearen eguna

Arkupeak elkarteak urtero egiten duen bazkidearen eguna urriaren 20an ospatuko da Gorraitzeko parroki-elizan. Mezan, urte honetan hildako kideak ekarriko dituzte gogora eta diamantezko eta urrezko ezteiak eta 85 urte bete dituzten bazkideak ere omenduko dituzte. Denera 530 pertsona baino gehiago bilduko dira, bazkide, omendu, familiako kide eta gonbidatuen artean. Aurten Juan Jose Larrañeta, Peruko domingotarren misioetan gotzain ibili zena, eta Felix Sanzberro, domingotarra izanen dira mezan, horregatik, meza elebiduna izanen da. Omenduei opariak eman aurretik argazki, margo eta literatur lehiaketako sariak banatuko dituzte. Horren ondotik, 14:00ak aldera Gorraitzeko jatetxean bazkalduko dute eta ondoren, Jose Angelekin dantzaldia izanen da.

# SENPERE

GIZARTEA → ZERBITZU BERRIA

## Hego Lapurdiko autobusak zerbitzua eskaintzen hasi dira herrian

Senpere eta Donibane Lohizune lotzen ditu 22. lineak

**Franck DOLOSOR**

Garraio publikoen sailean aldaketa handia hasi zen buruilarren lehenean autobus zerbitzua martxan eman zuelarik Hego Lapurdiko hiri elkargoak. Hamar linea berri martxan ezarri dituzte eta horien artean hogoita bigarren zenbakia duena Senperen barna ibiltzen da Donibane Lohizunerat buruz Azkainen gaindi. Autobusak Amotzeko zubitik abiatzen dira astelehenetik larun-

baterat 7h37, 9h36, 11h36, 13h56 eta 17h49. Aintziran, herrian, Ibarrun eta Helbarrun barna ibiltzen dira gero Donibane Lohizunerat buruz. Donibanen 8h25 eta 18h35 artean abiatzen dira. Xehetasun guztiak [www.hego-bus.fr](http://www.hego-bus.fr)

### Baraualdia presoen alde

20 lagunek euskal presoen aldeko gose greba egin dute berriki Oxtikenean. Iñaki Viquendi herritarrak gogoratu zuen badirela 5 urte ETAk armak isildu zituela eta deitoratu zuen geroztik Frantzia eta Espainiako gobernuek ez dutela urratsik eman



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Amotzeko zubitik, aintziran, herrian, Ibarrun eta Helbarrun barna ibiltzen dira autobusak.

presoak Euskal Herrirat hurbiltzeko. Filipe Bidart Iparratarrak taldeko kide ohi eta preso ohiak azpi marratu zuen eri diren presoek lehen bai lehen lortu behar dutela baldintzapeko askatasuna. Baigorriarraren ustez aministia osoa ardietsi behar da egiazko bake bidea zabaltzeko.

### Oxtikeneak 20 urte

Aurten, bi hamarkada betetzen dira euskaltzale talde batek Oxtikenea etxea erosi eta konpondu zuela euskal gunea sortzeko karrika nagusiaren ondoan. Urtemuga ospatzeko besta eguna apailatu dute urriaren 8an. Goizeko

11etan txontxogiloak izanen dira haurrentzat, eta puzgarriak egun osoan. Eguerdian bazkaria eta gauean kontzertuak, bertzeak bertze, Xutik taldearekin.

### Ekitaldiak Larrekon

"Liburua familian" deitzen den hitz orduaren bigarren edizioa ospatuko da heldu den urriaren 8an goizeko 9h30etatik 20h30etarat. Herriko etxeko kultura sailak bultzatzen duen ekitaldiak irakurzaletasuna zabaldu nahi du euskarazko eta frantsezko liburu berri emanez. Herriko liburutegiko arduradun, idazle eta irakurleen biltzarra

Larreko aretoan egingen da. Berriki, bertan egingen ere herriko 80 elkarte biltzar arrakatsua.

### Ibarrungo bestak

Mikeliak gain gainean ditugu. Buruilarren 30etik urriaren 3a arte ospatuko diren bestak ohiko xerri tikiaren jatearekin hasiko da Bidekoa taldeak bazterrak alaituko dituelarik. Larunbat gauean, 2zio, The Little Girl eta Samain taldeak ariko dira, igande arratsaldean Niko Etxart 18:00etan eta astelehenen Magali Zubillaga 19:00etan. Besta on ibarrundar eta senpertar guzietatik!

### URRIAREN 9AN IZANEN DA EMANALDIA, 15:00ETAN SARAKO PLAZAN

Zazpiak Bat taldeak bultzatutako Kabalkada prestatzen burubelarri dabilta saratarrak

**Joana GERENDIAIN**

Heldu den urriaren 9an, arratsaldeko 3etan, plazan saratarrek kabalkada bat emanen dute. Sartzea 12 euro gostako da (12 urte arteko haurrentzat urririk). Antzerki, dantzak, kantukak, bertsoak... Saran inoiz eman den lehen kabalkada izanen da.

Proiektu hori Zazpiak Bat taldeak bultzaturik gauzatu da, 2011ko *Oroitzapenetik bidaiarat* ikusgarriaren ildo segituz. 80 bat heldu motibatu dira proiektuan parte hartzeko, izan dantzari, antzerkilari, kantari.

Dantza errepikak 2015eko urrian hasi di-

ra eta antzerkia berantago maiatza inguruan. Ikusgarrian kabalkadako ohiturazko dantzak ikusten ahalko dira mutxiko, kadriak, gabota, fandango, arin arina eta makil tiki.

Urriaren 9an eguraldi txarra baldin bada emanaldia urriaren 16ra gibelera izanen da.





OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 15ETIK 25ERA

## Besta ezin ederragoak eskaini dituzte aurten ere gazteek

Lehen aldiz Mari Garabi saratar ziganteak parte hartu du

**Joana GERENDIAIN**

Aurten ere Sarako gazteek besta ezin ederragoak eskaini dituzte. Bestak Sara korrika elkarrekin antolatutako lasterketarekin hasi dira. Igande arratsaldean plaza jendez betea zen, 5ak aldean gaiteroak, ziganteak agertu ziren, lehen aldiko Mari Garabi Saratar ziganteak parte hartu zuten, ondotik zaldizkoak eta desfilea bukatzeko karroak. Bertze behin gazteek haien irudimen handia erakutsi dute: historiaurreko gizonak, bikingoak, cow-

boyak, kanpina, sagardotegia, muskulazio gela, futbola, auto kurtsa, spice-girl. Autoak pasa eta eta ahate jokoak eta herri kirolak egin dira. Gauerditan suzko xerriak ohiturazko suzko zezena ordezkatu du. Asotelehenean Olhain ikastolaren zikiroa egin zen polikiroldegian. Asteartean denbora txarra zela eta dantzaldia anulatu behar izan zuten baina hala ere R gaua iragan zen eta Zpeiz mukaki taldeak plaza animatu zuen gaztetxera joan aintzin. Asteazkenean trinketea kabalez eta jendez bete zen azidarentzat. Arratsaldean Odei Barroso, Andoni Egaña eta Xumai Murua betsoarietako plaza animatu zuten Zort'ziburuko neska taldeari le-



kua utzi aitzin. Gauean, suzirikik besten bukaera markatu zuten eta Herri'tmo taldeak zuen azken dantzaldia eman.

### Erakusketa

Urriaren 2ra arte Larungo koloreak elkarrekin bere obrak erakustgai izanen ditu Lur Berri gelan. Erakusketa idekia da goizeko 10 etatik 12:30 arte eta arratsaldean 3:30etik 7ak arte.

### Kirola

Gure kirolariek forman hasi dute sasoina. Esku baloiko neskek 24-18 irabazi dute Senperreko ekiparen kontra eta errubilariek ere garaipena lortu dute Sauveterres-en kontra 18-9. Errubilariek 3./4. Mailan



UTZITAKO ARGAZKIAK  
Ohiko karroz gain, lehen aldiko Mari Garabi ziganteak parte hartu du desfilean.

ari dira, baina aurten ez da 2. ekiparik muntatu. Eskubaloian, senior eki-

pak 17 neska kondatzen ditu, excellencesailean ari dira.

### SARA KORRIKA LASTERKETA BURUTU ZEN IRAILAREN 10EAN


## Guillaume Levoy eta Pauline Bernis nagusi 135 korrikalarik bukatu zuten proban

**Joana GERENDIAIN**

Sarako bestak hasteko, irailaren 10ean burutu zen Sara Korrika, 10,3 kilometro luze eta 374 metroko desnibel positiboa duen lasterketa. 135 korrikalarik bukatu zuten lasterketa eta denen buru, Guillaume Levoy izan zen (42:59). Fernando Etxegarai beraterra bigarren izan zen (43:31) eta

Pablo Mas hirugarren (44:34). Emakumezkoen artean, Sara Korrikako Pauline Bernis izan zen bizkorrena (58:16), Catherine Borocco (1:02:04) eta Mayie Sallaberryren aitzinetik (1:03:00).

Sarako korrikalariei dagokienez, David Nesprias (46:05) eta Claire Gillard (1:04:37) bosgarren izan ziren.



ARGAZKIA: SARA KORRIKA  
Sara Korrika taldeko Pauline Bernis izan zen bizkorrena emakumeen artean.

## GIZARTEA

LEHIAKETA → II. ARGAZKI LEHIAKETA ERRAN.EUS ATARIAN

# Xabier Erasunen argazkiak irabazi du epamahiaren saria

Erabiltzaileen saria Pello San Millanentzat izan da

### TTIPI-TTAPA

54 argazki aurkeztu dituzte *erran.eus* atariak

bigarren aldiz antolatutako argazki lehiaketara, eta horien artean, Xabier Erasun Eraunzetamurgilaren *Bi langileak...* argazkiak irabazi du epamahiaren saria. Hala, Itzaltzuko Besaro landahotelean asteburu bateko egonaldia irabazi du.

Erabiltzaileek ere izan dute hitza eta kasu honetan, Pello San Millanen *Baztango erreketako lamiak* argazkiak jasotako boto gehien. Honenbertez, Etxalaroko Bentan bi lagunendako otordua irabazi du. Baztango Zaporeak

produktuekin osatutako saskia lehiaketan parte hartu dutenen ar-

tean zozketatu da eta hori Jabier Larretxeari egokitu zaio.



Pello San Millanen *Baztango erreketako lamiak* argazkiak erabiltzaileen saria irabazi du.



Xabier Erasunen *Bi langileak...* argazkiarentzat izan da epamahiaren saria.

## EZKONTZEKOTAN?



ZURE EZKONTZARAKO  
BEHAR DUZUN GUZTIA  
HEMEN AURKI DEZAKEZU.  
I. EZKONTZA AZOKA  
**FICOBAN** (IRUN)

URRIAK 15 ETA 16

## EZKONTZAK

**Josu Vazquez Tainta** eta **Naikari Gallarraga Capdequi**, Lesaka eta Amasakoa, irailaren 10ean.

**Gorka Agirre Cascallana** eta **María López López**, Bera eta Almeriako, irailaren 22an.

**Antoine Barti-Magria** eta **Marie Tellechea**, Sarakoak, irailaren 9an.

**Daniel Iparragirre Iturria** eta **Ines Zelaia Erasun**, Arantza eta Berakoa, irailaren 17an.

**Jaime Arriazu Prieto** eta **Renata Elizalde Martinez-Peñuela**, Iruñekoak Lesakan, irailaren 3an.

**Ramon Mayan Lucas** eta **Miren Josune Izagirre Loperena**, Irungoak Lesakan, irailaren 10ean.

**Juan Carlos Gorosterrazu Elizalde** eta **Nerea Unanue Goenaga**, Ituren eta Getarikoak, irailaren 10ean.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## SORTZEAK

**Enea Oteiza Sarratea**, Nartartekoa, irailaren 15ean.

**Aitor Irazoki Altzuri**, Lesakakoa, irailaren 2an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## HERIOTZAK

**Matias Irazoki Berasain**, Berakoa, irailaren 7an, 90 urte.

**Bautista Goñi Erasun**, Beintza-Labaiengoa, irailaren 9an, 100 urte.

**Maria Pilar Marquinez Goche** (karmeldarra), Donamarian, irailaren 10ean.

**Roman Goikoetxea Almandoz**, Berakoa, irailaren 11n, 87 urte.

**Juan Larrainzar Erbiti**, Elizondon, irailaren 17an, 85 urte.

**Roberto Irungarai Dolagarai**, Irurita-koa, irailaren 17an, 91 urte.

**Jabier Barandarin Alustiza**, Aresokoa, irailaren 19an, 62 urte.

**Esteban Barrenetxe Alzuguren**, Azpilkuetakoa, irailaren 19an, 91 urte.



### Saioa TELLETXEA ZUBELDIA

Igantzin, 2013ko irailaren 17an

III. URTEMUGA

*Urte bat gehiago zu gabe, gure bihotzak, egunetik egunera tristeago daude.*

*Zure falta izugarria da eta oraindik ez dugu ikasi zu gabe bizitzen.*

*Ez zaitugu sekulan atzenduko.*

**ZURE FAMILIA**



### Roman GOIKOETXEA ALMANDOZ

Beran hil zen, 2016ko irailaren 11n, 87 urte zituela


*Beti irrifarrea zenuen lagunmin gauza denen gainetik aitzinerat ekin bizitzari helduaz gogo guziekin indar hau utzi duzu betiko gurekin maite izan zaitugun familiarekin.*

**ZURE FAMILIA**

### Beñat ETCHART VERDU

Urdazubin, 2011ko urriaren 6an  
V. URTEURRENA

*Errexa izan da zu maizatzea ezinezkoa zu ahaztea zure begien dizdira eta expainetako irria beti gurekin egonen dira.*



*Maite zaitugu*

**AITA, AMA, JOKIN ETA FAMILIA GUZTIA**

HERRI KIROLA → URRIAREN 23AN JOKATUKO DA BILBON

# Ez da inguruko aizkolaririk izanen aizkora txapelketa nagusiaren finalean

Irailaren 11n Leitzan jokatutako kanporaketan Iker Vicente izan zen bizkorrena

## TTIPI-TTAPA

Euskadiko lehen mailako aizkora txapelketaren kanporaketa jokatatu zen irailaren 11n Leitzako Amazabal pilotalekuan. Lehen maila osatzen duten 12 aizkolarietatik hamar aritu ziren, Joxe Mari Olasagastik medikuaren agiria aurkeztu baitzuen eta Floren Nazabalek aizkora utzi duelako. Gaur egungo Nafarroako txapelduna eta Euskal Herriko bigarren mailan txapeldun izan ondotik, lehen mailan debutatu



ARGAZKIA: IBON ERRAZU

Bilboko finalerako sailkatu den seikotea.

duen Otsagiko Iker Vicente izan zen bizkorrena.

Otsagikoarekin batera, gaur egungo Euskadiko txapelduna den Aitzol Atutxa bizkaitarrak, Mikel Larrañagak, Joseba Otaegik, Juanjo Lopezek eta Ugaitz Mugertzak lortu zuten urriaren 23an Bilbon jo-

katuko den finalerako txartela. Aldiz, Jon Rekondo eta Ruben Saralegi leitzarrak finaletik kanpo gelditu ziren, berderatzigarren eta hamargarren gelditu ondotik.

Aizkolariek 54 ontzako bi enbor, 60 ontzako bi enbor eta 72 ontzako bi enbor moztu zi-

tuzten (finalean izanen duten lanaren erdia). Iker Vicentek 19 minutu eta 15 segundo behar izan zituen lana burutzeko. Atuxak 19 minutu eta 54 segundotan egin zuten; ondotik sailkatu ziren Mikel Larrañaga gipuzkoarra (20:28), Joseba Otaegi gipuzkoarra (21:42), Lezaungo

SAILKAPENA	
1	I. Vicente 19:15
2	A. Atutxa 19:54
3	M. Larrañaga 20:28
4	J. Otaegi 21:42
5	JJ. Lopez 21:46
6	U. Mugertza 22:02
7	I. Azurmendi 22:06
8	J. Irazu 22:14
9	J. Rekondo 23:37
10	R. Saralegi 24:22

Juanjo Lopez (21:46) eta Ugaitz Mugertza gipuzkoarra (22:02). Lau segundorengatik finaletik kanpo gelditu zen Iñaki Azurmendi gipuzkoarra (22:06) eta hamabi segundorengatik Jon Irazu gipuzkoarra (22:14). Rekondok 23 minutu eta 37 segundo behar izan zituen lana bukatzeko eta Ruben Saralegik 24 minutu eta 22 segundo.

HERRI KIROLA → ANDOSILLAN JOKATU ZEN FINALA IRAILAREN 11N

## Arraioz eta Menditarrak Herriz Herriko txapeldun

Lehen nahiz bigarren proba konbinatuetan Baztango Basaburua txapeldun orde

## TTIPI-TTAPA

Nafarroako Herriz Herri txapelketaren finala jokatatu zen irailaren

11n Andosillan. Lehen proba konbinatuan Arraioz izan zen txapeldun eta bigarren proba konbinatuan Menditarrak taldea (Ultzama). Batean nahiz bertean, Basaburua izan zen txapeldun orde.

Lehen proba konbinatuan, lokotx biltzen, zaku lasterketan, aizkoran, korrika eta arpanan aritu ziren taldeak, hiru

txandatan. Arraiozko taldeak 18 minutu eta 28 segundo behar izan zituen lana burutzeko. Basaburua izan zen bigarren (18:53), Menditarrak hirugarren (19:45) eta Berriozar laugarren (20:58)

Bigarren proba konbinatuan (Bi Kirol), beriz, txinga-eramatea (50 kiloko txingekin ahalik eta plaza gehien egin)



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Arraiozko taldea lanean Beran jokatutako lehen saioan.

eta ingude altzatzea (18 kiloko ingudeari ahalik eta altxaldi gehien eman minutu batean) egin zituzten. Ultzamako Men-

ditarrak suertatu zen txapeldun, Basaburua eta Arraiozen aitzinetik. Berako taldeak ez zuen finalera azaltzerik izan.

Adina eta sasoi alde ditu, eta emaitzak dira horren lekuko. 21 urte baino ez ditu eta Nafarroako Koxkor Biltze Txapelketa irabazi du, eta Euskal Herrialdeen Herri-

Kirol Txapelketan ere, Nafarroako taldean, koxkorrekin bera izan zen garaile. Hurrengo hitzordua azaroaren 12an du, orduan jokatuko den Euskal Herriko Koxkor Biltze

Txapelketan aritzekoa baita. Baina bitartean, bere egunerokoarekin segiko du, kable tartean saltsan, elektrizista delako, eta izerdia botaz, kirola maite duelako.

Unai IANTZI MARITORENA | Anizko koxkor biltzailea

# «Lanetik atera eta kirola egiteak burua arintzen laguntzen dit»

G. PIKABEA | ANIZ

21 urterekin palmares polita osatzen ari da Unai Iantzi Maritorea Anizko gaztea. Lanbidez elektrizista da, eta afizioz kirolaria, eta zehazki, koxkorak biltzeagatik egiten ari da ezagun. Nafarroako Koxkor Biltze Txapelketa irabazi du aurten lehenbiziko aldiz, esperientzia eta izen haundiko kirolariei aitzin hartuz, eta joan den irailaren 3an, Euskal Herrialdeen Arteko Herri-Kirol Txapelketan Nafarroako taldea ordezkatuz ere bera izan zen nagusi, bere marka hobetuz. Sei minutu eta bederatzi segundo baino ez zituen behar izan 1,25 metroko tartearrekin bi lerroetan paratutako 50 koxkorak biltzeko.

Orain dela hamar urte hasi zen herri-kiroletan, «11 urterekin, Basaburuko taldearekin», eta gaineratu digunez, «herri-kiroletan hasi nintzenetik, koxkor biltzen aritu izan naiz». Nafarroako txapelketan, berriz, orain dela bost bat urte hasi omen zen: «lehenbizikoz 15 urterekin parte hartu nuela uste dut». Eta Nafarroako txapela dela onartu digu: «ez nuen espero. Lehengo urteetako nire denborak hobetzea espero nuen, baina txapelduen izaera inondik inora ere ez».



ARGAZKIA: FELIX BEITIA BELOKI

Unai Iantzi koxkor biltzen Donostian, Zazpi Herrialdeen Arteko Herri-Kirol Txapelketan.

## ENTRENAMENDUAK

Lanetik atera eta kirola egitea gustatzen zaiola kontatu digu: «izerdi pixka bat atera eta burua arintzeko». Nolako entrenamenduak egiten dituen ere azaldu digu: «astean guti goitibeheiti hirutan entrenatzen dut, normalean mendian lasterka 10 kilometro inguruko itzulia emanez. Halere, batzuetan errepidean ibiltzen naiz. Asartetan entrenatzen badut, lanetik bueltatzerakoan egiten dut, eta asteburuetan ahal bada, goizetan».

Herri-kirolak ez ezik, bertze kirol batzuk ere

## BASABURUA

«Duela urte dezente sortu zen Basaburuko Herri-Kirol Taldea, eta ordutik inguruko haur eta gazte gehienak bertatik pasatuak gara».

## KIROLAZ GAIN...

«Denbora librean, lagunekin egotea, kirola ikustea eta besta pixka bat egitea gustatzen zait. 21 urterekin besta ez gustatzea izanen litzateke arraroa».

probatuak ditu: «lehen Baztan Futbol Taldean aritzen nintzen, baina duela urte batzuk utzi nuen. Geroztik, bizikleta pixka bat probatu nuen, nahiz eta hori ere nahiko utzita daukadan».

Herri-kirolak baztertzeko asmorik, ordea, ez du. Aipatu digunez, zaletasun hori «Anizen dagoen herri kiroltara-ko tradizioetik» datorkio: «duela urte dezente sortu zen Basaburuko Herri-Kirol Taldea, eta ordutik inguruko haur eta gazte gehienak bertatik pasatuak gara». Kirolari gisa, erreferenterik ba-

duen galdetuta ere, ez da urruti joan: «Anizko Aitor Azkarate, dudarik gabe. Bera ere koxkor biltzen ibiltzen zen eta harriruta gelditzen nintzen koxkorak sartzeko zuen abileziarekin».

Esker oneko hitzak ere izan ditu Anizko gazteak: «eskerrak eman nahiko nizkieke Kiko eta Andoniri, urte luze hauetan Anizko frontoiko hotzari aurre eginez, gu entrenatze- ra etorri direlako».

## BERTZE ZALETASUNAK

Kirola egitea maite du, baina bertzelako kontuak ere atsegin ditu. Denbora librean duenean, «lagunekin egotea» gustatzen zaiola aipatu baitigu, «kirola ikustea ere arras gustuko dut», eta nola ez, bere adineko edozein gazte bezala, «besta pixka bat» egitea ere bai. Halaxe onartu digu. «21 urterekin besta ez gustatzea izanen litzateke arraroa», dio. Eta seguru aski asteburu honetan ospatzekoak diren herriko bestak ere aprobetxatuko ditu horretarako. Besta ondotik berriz hasiko da koxkorrei begira, heldu den azaroaren 12an Elgoibarran (Gipuzkoa) jokatu-ko den Euskal Herriko Koxkor Biltze Txapelketan parte hartzeko baita. Zortzerik onena opa diogu.

# irailak 29 - urriak 13

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus) edo 948 63 54 58

## Dantzak



SARA | 2016.10.09

### Kabalkada antolatu dute lehendabiziko aldiz Saran

Ehun bat saratarrek parte hartuko dute Saran antolatu den kabalkadan. Lau idazlek prestatua, herriko istorio batzuetan oinarrituta, plaza auzitegi bihurtuko da urriaren 9an. 15:00etan hasiko da.

## Ospakizunak



ELGORRIAGA | 2016.10.02

### Onddoaren urteroko hitzordua Elgorriagan

Onddo eta Zizen Kofradiaren besta handia urriaren 2an ospatuko dute Elgorriagan. Ohiko kaxula lehiaketaz gain, ondnoak dastatzeko aukera ere izanen da. Kofrade berriak ere izendatuko dituzte.

## Ospakizunak



GARTZAIN | 2016.10.09

### Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubiko eskola ttikien besta

10:30etik elkartu eta 11:00 aldera ibilbideak egingen dituzte. Eguerdian bazkari auto-gestionatua, arratsaldean tailerrak eta puzgarriak izanen dira haurrentako eta 16:30etik 19:30era musika.

## Erakusketak

SUNBILLA

### Tren Txikitoren mendeurrenako erakusketa

Irailaren 27tik urriaren 11ra.

SARA

### Larrungo Koloreak elkartearen lanak ikusgai

Irailaren 26tik urriaren 2ra  
Lur Berri Gelan, 10:00-12:30  
eta 15:30-19:00.

LESAKA

### Ernesto Gartziaren margoak

Urriaren 8tik 23ra Taupada lokalean. Ortzegunetik igandera 16:00-20:00.

ELIZONDO

### Tren Txikitoren mendeurrenako erakusketa

Urriaren 15etik azaroaren 7ra Arizkunenean, 18:00etatik 20:00etara astelehenetik larunbatera.

## Hitzaldiak

BERA

### Esnearen Ligaren hitzordua

Urriaren 10ean *Nola hasi elikadura osagarriarekin bularra ematen dudun bitartean?* 17:00etan Beralandetan. Dohainik.

## Kontzertuak

SARA

### Mendi Xola abesbatza

Irailaren 28an 21:00etan elizan.

ZUGARRAMURDI

### Kepa Junkeraren kontzertua

Urriaren 1ean 20:00etan lezeetan. Sarrerak 15 eurotan.

LESAKA

### Baionako Enara eta Lesakako Abesbatzak

Urriaren 8an 20:00etan San Martin Elizan.

## Bertsoak

DONEZTEBE

### Bertso marraztuak

Urriaren 9an Unai Gaztelumendi karikaturgile, eta Amets Arzallus eta Maialen Lujanbio bertsoan, 18:30ean Herriko Ostatuan.

## Bestak

URROZ

### Herriko bestak

Irailaren 28tik urriaren 2ra.

IGANTZI

### Herriko bestak

Irailaren 28tik urriaren 2ra.

SENPERE

### Ibarrungo bestak

Buruilaren 30etik

urriaren 3ra.

Xehetasunak 40. orrialdean.

ANIZ

### Herriko bestak

Urriaren 1etik 3ra.

Xehetasunak 35. orrialdean.

GARTZAIN

### Herriko bestak

Urriaren 11n eta 12an eta 14an eta 15ean.

Xehetasunak 37. orrialdean.

## PROPOSAMENA

ANIZ-GARTZAIN

### Urriko besten hitzordua

Urriaren sartu orduko, eta sanmigele lekukoa hartuz, urriaren 1etik 3ra Anizko bestak ospatuko dituzte. Aurten, gainera, bertso marraztuen emanaldia antolatu dute. Unai Gaztelumendi karikaturrekin egiten ariko da eta Amets Arzallus eta Unai Iturriaga bertsoan. Gartzaingain, berriz, Pilarikak urriaren 11n eta 12an eta 14an eta 15ean ospatuko dituzte. Azken egunean egingen duten zikiro jatearekin borobilduko dituzte bestak. Egun horretan luntxa ere egingen dute gauean.



## Lehiaketak

LESAKA

**Beti Gaztek antolatutako argazki lehiaketa**

Urriaren 31ra arte aurkez daitezke.

## Bertsoak

MÜSKILDI

**Xilaba txapelketako kanporaketa**

Urriaren 1ean Posonpese-nea gelan, 17:00etan.

BAIGORRI

**Xilaba txapelketako finalaurrekoa**

Urriaren 8an Plaza Xokon, 17:00etan.

IZTURITZE

**Xilaba txapelketako finalaurrekoa**

Urriaren 15ean Herriko Gelan, 17:00etan.

## Dantzak

LESAKA

**Gero Axular dantza taldea**

Urriaren 1ean Harriondoan, 19:00etan.

SARA

**Kabalkada plazan**

Urriaren 9an 15:00etan.

## Ospakizunak

LEITZA

**Aurrera Elkartearen Eguna**

Urriaren 1ean.

ELGORRIAGA

**Onddoaren besta**

Urriaren 2an.

ZUBIETA

**Euskararen Eguna**

Urriaren 8an.

SENPERE

**Oxtikenekoak Elkartearen 20. urteurrena**

Urriaren 8an.

## Nire aukera



Fermintxo MARITORENA

Aniz

«*Dakiten guztiak euskaraz ariko balira, Baztan euskaldunagoa izanen genuke*»

Injustiziak gustuko ez dituen pertsona». Hala aurkeztu digu Fermintxok bere burua. Iruñeko ostatu batean egiten du lan, eta onartu digunez, «zoritxarrez, nahi baino denbora libre gutiago dut». Eta baldin badu, «naturaz gozatzea, leitzea, yoga egitea, ikastaro edo hitzaldietarat joatea...» gustatzen zaio. Antzerkia ere atsegin du, «momentuz, nahiago dut ikusi, egiten hasi berria bainaiz eta oraindik aunitz dut ikasteko, baina nork daki etorkizun batean...». Dantzatzea eta bertzeak dantzan ikustea ere «arras gustuko» du: «arras dantzaria naiz, musika aditu orduko gorputza mugimenduan hasten zait, berdin zait zein dantza mota. Dantzak ikustea ere ikaragarri gustatzen zait. Biak lotuak daude». Ate joka dauden Anizko bestak «politikak» direla dio, «arras parte-hartzaileak», eta zerbait bereizte-kotan «astelehen gaueko su inguruko xingar jatea» aukeratu du: «momentu berezia da, musika, kanta, sua... energia onasentitzen dut». Ez du deusen faltarik somatzen bestetan, nahiz eta aitortu «larunbatean jende gehiago etorriko balitz, ongi egonen litzatekeela.

«**Herritarrok kontzientziatuak gaude herrian egin behar diren aferak herritarrok egin behar ditugula**»

Baina hori ez dago gure esku. Horretarako, bertze herriek herrieta-ko bestak errespetatu behar dituzte». Herriaz ere hitz politikak ditu: «Anizen toki aunitz dira politikak, baina bereziki Urlei mendia, eta zehazki bidean dagoen Dartea, eta Urleiko haitz bat». Auzolanaren indarra ere azpimarratu du: «ez dut irudikatzen Aniz auzolanik gabe. Herritarrok kontzientziatuak gaude herrian egin behar diren aferak herritarrok egin behar ditugula». Euskalzalea izaki, horretaz ere mintzatu zaigu: «pena, lotsa eta tristura ematen dit aditzaiek zenbat euskaldun aritzen diren beraien artean erdaraz, euskaraz bizi nahi dut aldarrikatuz. A ze eredu! Kontzientzia falta handia dago, ez dakit jende hori kontu ematen ote den horrek duen eraginaz». Anizen euskararen egoera «arras ongi» ikusten du, baina «azken bi urteotan haur batzuegan erdararen eragina sumatzen hasi naiz, eta horrek kezka sortzen dit». Baztanen, berriz, egoera hobetzen ari dela uste du, baina «nahi baino gutiago aditzen dut euskara, dakitenak ez baitira mintzatzen». Argi du: «dakiten guztiak euskaraz solastatuko balira, Baztan euskaldunagoa izanen genuke». Gainerakoan, «mundu aske eta justuago batean bizitzea» izanen litzateke bere ametsa: «orekatua, errespetua, bazterketarik gabea, inor inoren gainetik egon gabe». Beretako garrantzitsua baita «norberak bere burua eta bertzeak maitatzea».

BERA

**Goldatz Emakume Taldearen 1. urteurrenoko besta**

Urriaren 8an.

GARTZAIN

**Baztan-Zugarramurdi eta Urdazubiko eskola ttikien besta**

Urriaren 9an 10:30etik aitzinera. Goizean ibilbideak, eguerdian bazkaria eta arratsaldean tailerrak, puzgarriak eta musika.

## Jardunaldiak

BAZTAN

**Hegaztien jardunaldiak**

Irailaren 30ean eta urriaren 3 eta 4an.

## Azokak

SARA

**Ekoirole, artisau eta sortzaileen azoka**

Ortziralero 16:30etik 20:30era frontoian.

**Artisau, sortzaile eta komertzianteen azoka**

Astelehenero 09:00etatik aitzinera plazan.

## Zinema

ELIZONDO

**'Neskatoak' dokumentala**

Urriaren 15ean 19:00etan Arizkunenean.

## Kirol hitzorduak

BAZTAN

**Mendigoizaleen ateraldia**

Urriaren 1ean ateraldi luzea Baztanen (06:00-07:00).

LEITZA

**Leitzulia BTT mendi ibilaldia**

Urriaren 8an.

BERA

**Kirol Eguna**

Urriaren 8an Toki Ona Kiroldegian.

**ETXEBIZITZAK**

salgai

**ORNOZ-MUGAIRI.** Pisuua salgai, 90 m<sup>2</sup>ko azalerakoa. Etxe moblezatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. Eta 60 m<sup>2</sup>ko bajera ere salgai 15.000 eurotan. ☎948 585036.

**ANZABAL**

INMOBILIARIA

**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan**  
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

**URDAZUBI**  
- Etxe berri bat salgai, moblezatua. 2000 m<sup>2</sup>ko lursailarekin.

**DONEZTEBE**  
- **Aukera:** 102 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde moblezatua eta 17 m<sup>2</sup>ko trastelekuak.

Tel. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com

**ELIZONDO.** Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 59.900 euro. ☎646 774117.

**BAZTAN.** Jubilazioagatik 33.000 m<sup>2</sup>ko lur eremua duen baserria salgai. Teilatu berria eta barnealdea berritzeko. 150 m<sup>2</sup>ko solairuekin. Ura badauka, argirik ez. 500 metroko pista moldatzeko. Eremu itxia. 80.000 euro eta 4x4 ibilgailua opari. Erraztasuna. ☎650 395477.

**ELIZONDO.** Braulio Iriarten pisua salgai. 3 logela, bainugela, sukalde eta jangela. Arras egoera onean. Moblez-

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN **IRAGARKIA JARTZEKO 10€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 12€ IRAGARKI BAKOITZEKO GEHIENEZ 25 HITZ ONARTUKO DIRA**

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

tatua. Berogailuarekin. 60.000 euro. ☎626 774582.

**ETXEBIZITZAK**

errentan emateko

**LESAKA.** Logelak errentan emateko, astelehenetik ortziralerara, irailetik aurrera. Bakoitza bere komunarekin, telebista eta sukaldea erabiltzeko aukerarekin. ☎948 637862 / 678 855056.

**IRUÑEA.** Azpilagaina auzoan, 2 unibertsitateetatik gertu dagoen 3 logelako pisua alokairuan. Dena eraberritua. Interesatuak telefonoz deitu. Kontratuarekin. ☎608 287273.



**BERA.** 3 solairuko etxea errentan emateko. Sukalde-jangela, 5 logela, 2 bainugela, egongela, sotoa, garajea, lorategia... Dena kanpora begira. Interesatuak deitu. ☎619 317168 / 609 163606.

**ETXEBIZITZAK**

errentan hartzeko

**BERA.** Pisuua errentan hartu nahi dute 2 neska arduratsuk, moblezatua eta egoera onean. Biak lanean. 400 euro. ☎627 086071 / 663 420685 (20:00etatik aitzinera).

**LESAKA INGURUAN.** Pisuua edo etxea errentan hartuko genuke. ☎642 993776.

**ETXEBIZITZAK**

konpartitzeko

**IRUÑEA.** Unibertsitate publiko ondoan logela errentan emateko. ☎620 209663.

**GARAJEAK/LOKALAK**

salgai

**DONEZTEBE.** Leitzako errepeidea 29n, lokala salgai. 68 m<sup>2</sup>. Prezio interesgarria. ☎948 456010.

**LURRAK/ORUBEAK**

salgai

**IGANTZI.** 3.000 m<sup>2</sup>ko lurzatie salgai, mendian. Haritza, platanoa eta akazia. Prezioa: 5.000 euro. ☎619 845859.

**SUNBILLA.** Jubilazioagatik 25.000 m<sup>2</sup>ko lur eremua salgai. Nekazaritza lanabesetarako 25 m<sup>2</sup>ko biltegia eraikitzeko aukerarekin. Erlauntza, sagarrondo, intxaurrondo, hurritzendako... aproposa. ☎678 099422.

**ZERBITZUAK**

ikastaroak

**DONEZTEBE eta ERRATZU.** Margo eta marrazketa eskolak 16 urtetik goitikoentzat. Urritik maiatzera. Hai-bat erduteki eta espezializatutako tailerrak. ☎948 453478 / 659 948926. [www.diana.iniestabenedicto.es](http://www.diana.iniestabenedicto.es).

**ZERBITZUAK**

psikologoak

**ROSA BELZUNEGI**  
**PSIKOANALISTA**  
Kontsultarako eskatu ordua  
☎ 948 272011 (IRUÑA)  
☎ 948 580975  
Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

**LANA**

eskaintzak

**On-line lanean** aritzeko, zerbitzariak, komertzialak, autonomoak edo bertzelako langileak behar dira. ☎699 382673.

**LESAKA.** Atxaspi hotzean bi langile behar ditugu: tabernarako kamarera (dedikazio osoa edo asteburuak bakarrik) eta hotelerako (be-

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**  
(Irailaren 9tik 16ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 35 €

**Zerri gizena**  
1,320 € kiloak.

**Zerramak:**  
0,730 € Kg/bizirik.

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 4,16

**1.koa** 3,93  
**2.koa** 3,75

**Urruxak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 4,24  
**1.koa** 3,97  
**2.koa** 3,80

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 140,00  
idixkoak 228,00

**Aretze nabarrak:**  
urruxak 120,00  
idixkoak 180,00

**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 3,03/3,13  
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 5,40/6,40  
8-10 kilokoak: 4,80/5,20



zeroekin harremana eta garbiketa). ☎673 339 920ra deitu edo [alejandra@atxaspi.com](mailto:alejandra@atxaspi.com) curriculuma bidali.

**BERA.** Jatetxe batean zerbitzari bat behar da asteburuetan mahaia zerbitzatzeko. ☎617 723475.

**ELIZONDO.** Bidegain arraindegian gida-baime-na duen langilea behar da, asteartetik larunbatera goizez aritzeko. Curriculuma: Jaime Urrutia 22 helbidera, arraindegira eraman edo [maite@pescadosbidegain.com](mailto:maite@pescadosbidegain.com) era bidali.

**ZUGARRAMURDI.** Denda eta ostatuan barran aritzeko langilea behar da, goizez aritzeko. ☎948 599022.

**Adineko hiru lagun zaintzeko** pertsona bat behar da. Hilabetean behin, larunbat eguerdik igande eguerdira zain-tzeko. Euskalduna. ☎636 610566.

**LANA eskariak**

**BAZTAN eta INGURUAN** neska bat lan bila. Ile-apaindegi eta estetikako laguntzaile titulua duena. Haurrak zaintzen, etxez-ete ilea apaintzen, garbiketa-lanetan, ostalaritzan edota beste alo-rretan lan egin eta ikas-teko prest. ☎644 120629.

**BAZTAN eta INGU-RUAN** neska lan bila. Interna moduan edo orduka adinekoak zaintzen, garbiketa lanetan, haurrak zaintzen edota ostalaritzan esperientzia duena. Aipatutako lane-tan interesa. ☎664 149530.

**MOTORRAK salgai**

**Yamaha R1 motorra** salgai, hagitz egoera



onean dago. Deitu kon-promisorik gabe. ☎617 216365 / [fattixan@hotmail.com](mailto:fattixan@hotmail.com).

**Yamaha XMAX 250 motorra** salgai, bizkar-ralde (*respaldo*) origina-larekin. 6.500 kilometro, 2012koa. ☎626 097128.



**ANIMALIAK oparitzeko**

**Katakumeak** oparitzeko. ☎619 988383.

**ANIMALIAK salgai**

**ARESO.** Bi txakurkume salgai, aita eta ama ehiz-tari onak. Txertatuak eta desparasituak daude. Hiru kolorekoak dira. 3 hilabete dauzkate. ☎609 937127.



**Setter arrazako 3 za-kur** salgai, oilagorretakoak. 5 hilabetekoak. Arraza onekoak. Txerto guztiekin eta despara-situak. ☎948 599196 / 639 562361.

**BERA.** 3 urteko akerra salgai. ☎617 216365. [fattixan@hotmail.com](mailto:fattixan@hotmail.com).

**DENETARIK salgai**

**Haritz egurra** salgai, Donezteben. 40 euro to-na. ☎948 450135.



**Altzairuzko sei frega-dera** salgai, 1,5 m luze, borobila. ☎948 585036.

**ORONOZ.** Egurra xe-hetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eram-nen da. ☎676 242520.



Jane Matrix **kapota, maxi cosia eta silleta** salgai. Egoera onean. Motxila opari. ☎690 388263.



**Bugaboo haur-aulkia** salgai. Kapazua, aul-kia, maxi cosia, negu-ko zakua, udako funda, euritako plastikoa, pol-tsa eta eguzkitakoa. Gri-sa eta gordin artile ko-

**SANTESTEBAN TAILERRAK**

**18.400€\*** **KM 0**  
**MEGANE ZEN DCI 110 CV**  
 Estreinatua gabea, Nabigatzailea, 6 marxa, Ilantak, Klimatizadorea.

**12.950€\*** **KM 0**  
 \*Sustapen Inantzeroko lotua

**CLIO LIMITED TCE 90 CV**  
 Estreinatua gabea, Nabigatzailea, Ilantak, Klimatizadorea.

Leitzoko errepidea **DONEZTEBE**  
 T. 948 450 282 - [doneztebe@red.renault.es](mailto:doneztebe@red.renault.es)

lorekoa. Egoera oso onean. ☎659 867414.

**Antzinako mahaia** salgai, zaharberritua eta egoera onean. Neurriak: luzera 1,50 m, zabale-ra 0,85 m eta altuera 0,80 m. ☎653 021320.



**Akazia piketeak** salgai. ☎667 885749.

**Autosilleta** salgai, Be-beconfort Milofi mar-

**Automóviles IMOBA**  
 Okasioko ibilgailuen salerosketa  
 FORD auto berriak eta Km 0

**RENAULT KANGOO TURISMO 2012**

**VW TOURAN AUTOMATIKOA 2012**

**PEUGEOT 307 SW 4.500€**

Irun-Iruña errepidea  
 N-121-A 63.km **BERA**  
 948 630 750 | 648 231 361  
[www.automovilesimoba.com](http://www.automovilesimoba.com)

kakoa. Grupo 0+ / 1. Isofixarekin. ☎669 180779.



**EGUTEGI PERTSONALIZATUAK**

**Paretan jartzekoak**  
 Kontsultatu neurriak, hilabeteak ilargiekin, euskaraz, elebitan...

**Mahai gaineko egutegiak**  
 Modelo ugari aukeran, trokelatuak, paper edo PCVzkoak

**Posterrak**  
 Neurri handikoak:  
 A1, A2, A3.  
 Paper lodian

**Sakelekoak**  
 55x85 mm.  
 66x96 mm.  
 Izkin borobilduak



Koskontako bidea, 7 - Lesaka  
 T. 948 63 54 58  
[www.kulturkari.com](http://www.kulturkari.com)  
[kulturkari@ttipi.eus](mailto:kulturkari@ttipi.eus)




**Eskatu aurrekontua!**

# urtebetetzeak

Argazki soilak: 5€; bikoitzak: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,45€ko 12 edo 24 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekoa; 4) erran.eus bitartez



Zorionak **INTZA!** Irailaren 18an 4 urte bete dituzu! Zeinen gustura ospatu dugun zure eguna! Muxu handi bat eta mila kilo zorion!



Aresoko **ENARA BARANDARAIN MITXAUSEK 2** urte beteko dituzte urriaren 3an. Zorionak eta patxo potolo bat prexioxa!



Zorionak **AINTZIRA** matteal! Urte zoragarria pasa dugu zure ondoan!!! Segi beti bezain bihurri eta alai! Muxu potolo bat familia guztiaren partetik! Askato matte zattu!



**ELAIK** irailaren 12an 6 urte bete zituen. Auniz urtez gure printzesari eta mila muxu potolo!



**ARENE** eta **ANA** sorgin pare honek urteak bete dituzte irailaren 16an eta 17an. Zorionak eta urte askotarako. Muxu haundi bana. Berendu goxo-goxoa prestatu.




Goizuetako **URKI LARRALDE AROTZENAK** urtea beteko du irailaren 28an. Mila zorion pottoko eta muxu asko etxekoan partetik!



Auniz urtez **MATTIN** eta **EIDER!** Urteak bete dituzte irailaren 23an eta 25ean. Egun polita pasatu eta muxuak etxekoan partetik.



Aizoango **JANIRE REMIREZ PERURENAK** irailaren 29an 12 urte beteko dituzte. Besarkada bat guraso, Iraia, Iturriego familia eta berexiki Beñat eta Iratiren partetik.



Berako **ANER DEL POZO RIOPEDEK** urteak bete dituzte irailaren 11n. Auniz urtez tesoro! Muxu potolo bat.



Etxalarko **AIERT IRIARTE BENGOTXEAK** 4 urte bete dituzte irailaren 25ean. Auniz urtez eta muxu potolo bat Etxalarko familiaren partetik.



**EKHI JAURENA EIZAGIRREK** 2 urte beteko dituzte urriaren 1ean. Zorionak eta auniz urtez attatto eta amatoren partetik!



Igantziako **UNAX URTXEGI RODRIGOK** 5 urte beteko dituzte buruilaren 29an. Zorionak eta auniz urtez txirindulari!! Muxu haundi bat familia guztiaren eta berexiki Iزارo zure arrebaren partetik!!




Sunbillako **OIER AGIRRE ARRETXEAK** irailaren 16an 12 urte bete dituzte. Auniz urtez! Lekunberri, Gerendiain eta Sunbillako familiak, gurasoak eta Argia.



**ITZEA LUKANBIO ASTIASARANEK** urtea beteko du urriaren 2an. Kuadrillako tikia ere ari da haunditzen! Zorionak eta muxu haundi bat!



**ROSARIO MONACO** leitzarrak urriaren 7an urteak beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat Aurtizko familiaren partetik!



Zorionak **ARITZ** eta **AROA!** Ongi pasatu zuen egunak eta muxu haundi bat.



Lesakako **JARE MAIA AROZENAK** 5 urte beteko dituzte urriaren 5ean. Zorionak eta 5 muxu haundi familiaren partetik.

ttipi txartela-rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK... TTUPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK -%80ko DESGRABAZIOA ERRENTA AITORPENEAN Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago: TTUPI-TTAPA Rosakaldea 106a, 7 LESAKA T. 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57 info@ttipi.eus | erran.eus



**ZOZKETAK**

Donamariako ostalua - 2 ordu Miguel M<sup>o</sup> Lasarte Marienkurrena | LEZKURRA Arkupe Gozetegia - Txokolate lote bat Daniel Fernandez Arroabarren | ALMANDOZ Irrisarritland - 2 sarrera Elena Sorozabal Arretxea | SUNBILLA Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera Esther Arrupea Plaza | LEITZA Buatzabal | Kamiseta bat Ines Erneta Azanza | IRUÑEA Donostiako Aquariuma - 2 sarrera Pello Alaña Sanchis | ELIZONDO Baga-Biga - CD bat Jon Oskaro Perurena | ARIZKUN Baga-Biga - CD bat Inma Grajarena Mutuberria | ZUBIETA

670. aleko irabazleak

**MARTIKO** LOTE BAT **MARTIKO** www.martiko.com

**SARRERAK ZUGARRAMURDIKO LEZEAK** www.turismozugarramurdi.com

**Lanku** 2 DVD 2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusia **LANKU** www.lanku.com

**EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA** www.eurekamuseoa.es 2 sarrera Hekitu bat eta Daxte bat

**KAMISETA BAT ONDDO TA PUNTO** www.onddotapunto.com

**2 SARRERA DONOSTIAKO AQUARIUMA** www.aquariumss.com 2 sarrera

**LI BURUAK** Maitasun sua | Ijitoen altxorra | Heriotza zuriz jantzita

Maitasun sua - Aitor Arana  
Ijitoen altxorra - Aitor Arana  
Heriotza zuriz jantzita  
Migel Anjel Mintegi

ibaizabal www.ibaizabal.com

**DESKONTUAK %** **ZELTA KIROLAK** BERA | %5 **IPINGI** ELIZONDO | %10 30etik gorteko erabazterekin

**ttipi-ttapa** LESAKA | %10 erabazterekin **edr igunea** LEITZA | %5 30etik gorteko erabazterekin %10 30etik gorteko erabazterekin 1-2114111111 marka izan dezake

**NEKAZARI ZERBITZUAK** Nekazari Zerbitzuak Nominatario Andara **DONEZTEBE** | %5 30etik gorteko erabazterekin **ETXE TRESNAK S.L.** LEITZA | %10 30etik gorteko erabazterekin 30etik gorteko erabazterekin 1-2114111111 marka izan dezake

# EUSKARAZ?

**BAI!**

**VOY!**



**20 EUSKALTEGI, IKASTEGI ETA AKADEMIA BAINO  
GEHIAGO ZURE ESKURA NAFARROAN**

**ZATOZ  
EUSKARA  
IKASTERA**

[WWW.EUSKARAIKASI.NAFARROA.EUS](http://WWW.EUSKARAIKASI.NAFARROA.EUS) | [WWW.APRENDEEUSKERA.NAVARRA.ES](http://WWW.APRENDEEUSKERA.NAVARRA.ES)

 848 426 054 (ORDUTEGIA 08:30 - 14:30)

Nafarroako  Gobernua | Gobierno de Navarra



ARAUTUTAKO KILOMETRAJEA  
KILOMETRAJE REGLADO

#casolina16



5 & 10 KM.

# III. CARRERA SOLIDARIA NAVARRA

IRUÑA-PAMPLONA

# III. NAFARROAKO LASTERKETA SOLIDARIOA

[www.carrerasolidarianavarra.com](http://www.carrerasolidarianavarra.com)

2016KO URRIAK 9 DE OCTUBRE DE 2016

SALIDA Pº SARASATE - 11H.

IRTEERA: SARASATE P. - 11ETAN

INSCRIPZIOAREN DIRUBILKETA **ANFAS**EN ALDE IZANGO DA  
LA INSCRIPCIÓN SERÁ ÍNTEGRAMENTE PARA AYUDAR A **ANFAS**

Rock the sport



up **na**  
Universidad  
Pública de Navarra  
Nafarroako  
Unibertsitate Publikoa

banka kooperatiboa



LABORAL  
kutxa